

OIARTZUNGO XXXVIII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESÍA
LEHIAKETA **2025**

Oiartzungo Udala
Lege gordailua: D-00266-2026
Fotokonposaketa eta imprimaketa: GRAFO, S.A.

OIARTZUNGO XXXVIII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESÍA
LEHIAKETA **2025**





Istorioak eta historia

Hitzen bidez irekitzen dugu istorioen eta historiaren arteko bide lauso nahiz zirraragarria. Bi hitz ia berdín-berdinak diruditenak, baina barruan oso ezberdinak, elkarrengandik oso urrun daudela pentsatzen dugun bi hitz, bi unibertso. Bata gertakizunetan oinarritzen da, bestea irudimenean. Bata egia zorrotzarekin lotzen dugu, bestea fikzioarekin. Hala ere, arretaz begiratuz gero, biak ala biak elkarren osagarri direla ikus dezakegu, harrigarriki antzekoak diren sekretuak gordetzen dituzten bi mundu baitira.

Historiak gertatu zenaren arrastoa jasotzen du: data zehatzak, lekukotzak, gertakariak. Baina istorioek erakusten dute nola bizi zen hori guztia. Dokumentuek isiltzen dutena askotan kontatzen du literaturak. Eta, alderantziz, fikzioa dirudien hura gure herriaren oroimenetik ere edaten da; izan ere, istorioak dira askotan historiaren argi-itzalak, bere ahanzturak, bere isilpeko egunak, bere egiazko kolorea.

Literaturak badu botere berezi bat: esatera ausartzen ez garena esateko gaitasuna. Gordinak diren egia zaharrak kontatzeko, samurtasunez bilduta bada ere. Batzuetan historiak isilik utzi dituen zauriak agerian jartzen dituzte istorioek. Eta alderantziz, istorio batean entzundako ahots batek gure historiaren zati batzuk ulertzen laguntzen digu.

Eta horregatik gaude gaur hemen: hitzak entzun, hitzak partekatu eta hitzek gidatutako gure bidea egiteko. Badakigulako istorio bakoitza zubi bat dela gure historiara, eta historia bera ez dela inoiz osorik egongo kontatu gabe gelditu diren istorioek isilean dirauten bitartean.

Beraz, ondoko orrietan datozen istorioak irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, horien atzean ezkutatzen den historia horri begiratuzera. Agian, gaur hemen jaioko den istorio txiki bat bihurtuko da etorkizuneko historiaren parte.

Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi
Hizkuntz Normalizaziorako zinegotzia



Oiartzungo Xabier Lete Prosa eta Poesia Lehiaketaren 2025eko saridunak

2025eko epaimahaikideak:

Pello Añorga Lopez	Ipuin kontalaria
Goiatz Labandibar Arbelaitz	Kazetaria eta idazlea
Marijo Telletxea Tolosa	Irakaslea
Xabier Arrojo Cabrejas	Irakaslea
Olatz Mitxelena Larreta	Irakaslea
Sohalge Arbelaitz Kortabarría	Irakaslea
Imanol Irigoien Aranberri	Poeta eta margolaria
Intxixu AEK euskaltegia	
Ttur-ttur Euskaltzaleon Bilgunea	

Lehendakaria: Aiako Harria Gaztelumendi Gaztelumendi (Hizkuntz normalizaziorako zinegotzia).

Idazkaria: Aitziber Arnaiz Garmendia (Hizkuntz normalizaziorako teknikaria).

Zuzenketak: Arkaitz Goikoetxea Arriola.

Ilustrazioak: Jokin Mitxelena Erize.

Azaleko ilustrazioa eta logotipoa: Metrokoadroka Sormen Laboratekiko Idoia Beratarbide Arrieta eta Allende Arnaiz Garmendia.



2025eko saridunak

SAILA	MAILA	PROSA	POESIA
1. SAILA	LH3	ANER HERRERA ARBIDE <i>Zulo luzeak</i> MADDI LEUNDA MORENO <i>Izar</i>	
2. SAILA	LH4	ZIHARA ASTARLOZA ETXEBERRIA <i>Galdu ziren txakurrak agertu dira</i> MALEN PIRES ARRASTUA <i>Tipula geruzak</i>	
3. SAILA	LH5-6	UNAX SARRIEGI MADARIAGA <i>Azoka eguna</i> AURITZ AZURMENDI ZAPIRAIN <i>Arratoien inbasioa!</i>	JARE ASTARLOZA ETXEBERRIA <i>Han eta hemen</i> EKHI ARREGI MAYOZ <i>Aiako Harria</i>
4. SAILA	DBH1-2	TELMO RUIZ TOLOSA <i>Egiaren isla</i> TEO BARRIOLA PIKABEA <i>Errudun</i>	KATTIN GARAY MENDIBOURE <i>Bizitza</i> MALEN OIARBIDE GURRUTXAGA <i>Zurekin</i>
5. SAILA	DBH3-4	INTZA MITXELENA MENDIZABAL <i>Begira</i> AIORA ZALDUA ELIZETXEA <i>Bizipenak altxor</i>	AITZURI REBOLLO ZUBILLAGA <i>Itxurak</i> UXUE ARSUAGA ARANA <i>Ez entzun, ez ikusi, ez egin</i>
6. SAILA	16-18 urte	ILARGI ZIAURRITZ OLAZIREGI <i>Kaiolan harrapatuta</i> KATTALIN ARABOLAZA PALOMO <i>Agur esateko beti da goizegi</i>	KATTALIN ARABOLAZA PALOMO <i>Ahazten dudala ahaztu</i> MADDI GARMENDIA IRASTORZA <i>Zure falta dut</i>

PROSA / AIPAMEN BEREZIA

1. SAILA - LH3
UR IRAZUSTA OSTOLAZA - *Aupa Palestinako haurrak*
2. SAILA - LH4
EKHI MANTEROLA SALABERRIA - *Liburuan sartuta*
3. SAILA - LH5-6
NOA ZABALEGI ALBERRO - *Orri zuriarekin itsututa*
4. SAILA - DBH1-2
JOANE LETE CASTELRUIZ - *Oroitzapenak*
5. SAILA - DBH3-4
JUNE MAKAZAGA GARATE - *Lorategi ezkutua*
6. SAILA - 16-18 urte
MANEX ELEGETA TOLOSA - *40 minutuz*

POESIA / AIPAMEN BEREZIA

4. SAILA - DBH1-2
IBINTZA LOPEZ AZURMENDI -
Gaza
5. SAILA - DBH3-4
MIREIA SAGARRA MARTIN -
Ezin egin aurrera
6. SAILA - 16-18 urte
EKHI ARIZMENDI TELLETXEA -
Lanbroa



PROSA

1. saila (LH 3)	00
<i>Zulo luzeak (Aner Herrera Arbide)</i>	00
<i>Izar (Maddi Leunda Moreno)</i>	00
<i>Aupa Palestinako haurrak (Ur Irazusta Ostolaza)</i>	00
2. saila (LH 4)	00
<i>Galdu ziren txakurrak agertu dira (Zihara Astarloza Etxeberria)</i>	00
<i>Tipula geruzak (Malen Pires Arrastua)</i>	00
<i>Liburuan sartuta (Ekhi Manterola Salaberria)</i>	00
3. saila (LH 5-6)	00
<i>Azoka eguna (Unax Sarriegi Madariaga)</i>	00
<i>Arratoien inbasioa! (Auritz Azurmendi Zapirain)</i>	00
<i>Orri zuriarekin itsututa (Noa Zabalegi Alberro)</i>	00
4. saila (DBH 1-2)	00
<i>Egiaren isla (Telmo Ruiz Tolosa)</i>	00
<i>Errudun (Teo Barriola Pikabea)</i>	00
<i>Oroitzapenak (Joane Lete Castelruiz)</i>	00
5. saila (DBH 3-4)	00
<i>Begira (Intza Mitxelena Mendizabal)</i>	00
<i>Bizipenak altxor (Aiora Zaldua Elizetxea)</i>	00
<i>Lorategi ezkutua (June Makazaga Garate)</i>	00
6. saila (16-18 urte)	00
<i>Kaiolan harrapatuta (Ilargi Ziaurritz Olaziregi)</i>	00
<i>Agur esateko beti da goizegi (Kattalin Arabolaza Palomo)</i>	00
<i>40 minutuz (Manex Elgeta Tolosa)</i>	00

POESIA

3. saila (LH 5-6)	00
<i>Han eta hemen</i> (Jare Astarloza Etxeberria)	00
<i>Aiako Harria</i> (Ekhi Arregi Mayoz)	00
4. saila (DBH 1-2)	00
<i>Bizitza</i> (Kattin Garay Mendiboure)	00
<i>Zurekin</i> (Malen Oiarbide Gurrutxaga)	00
<i>Gaza</i> (Ibintza Lopez Azurmendi).....	00
5. saila (DBH 3-4)	00
<i>Itxurak</i> (Aitzuri Rebollo Zubillaga)	00
<i>Ez entzun, ez ikusi, ez egin</i> (Uxue Arsuaga Arana).....	00
<i>Ezin egin aurrera</i> (Mireia Sagarra Martin)	00
6. saila (16-18 urte)	00
<i>Ahazten dudala ahaztu</i> (Kattalin Arabolaza Palomo)	00
<i>Zure falta dut</i> (Maddi Garmendia Irastorza).....	00
<i>Lanbroa</i> (Ekhi Arizmendi Telletxea).....	00

OIARTZUNGO XXXVIII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESÍA
LEHIAKETA **2025**






**ANER
HERRERA
ARBIDE**
Berenjena

ZULO LUZEAK

212. urtean, Lurrean bazeuden zulo luze batzuk toki batetik bestera garraiatzeko balio zutenak. Bazegoen horrelako beste bat Lurrean gelditu beharrean espazioan gelditzen zena. Zulo horren ondoan etxe bat zegoen. Etxe horretan Gexan izeneko haur bat bizi zen. 10 urte zituen.

Istripuz etxe ondoko zulora erori zen itolarrian. Suertez espazio-ontzia zegoen. Espazio-ontziaren barruan botoi koloretsu asko zeuden. Horiari eman eta piztu egin zen eta 7 urtez espazioan galduta egon zen. Espazio-ontziak planetaz planeta egiten zuen eta ikertzeko aprobetxatzen zuen. Ikertu zituen planeten izenak: Silon, Eoni, Azi, Xeni eta Jeji.

Jeji planeta ikertzen ari zela, istripuz zulo batetik erori eta Lurrean agertu zen.



17



**MADDI
LEUNDA
MORENO**
Elur maluta

IZAR

Oiartzunen gertatu zen 2025ean. Dagoeneko lau pertsona sartuak ziren udaletxera eta pertsona haien umeak (ipuin honetan protagonistak izango direnak) Kaia, Zoe, Aimar eta Luka ziren.

Kaia oso kuxkuxeroa zen. Zoeri irakurtzea gustatzen zitzaion. Aimarri lo egitea. Eta Luka, Luka oso kalakaria zen.

Udaletxera sartu ziren guztiak zioten beren etxeko gauza batzuk DESAGERTU EGITEN ZIRELA! Beraz, laukoteak erabaki zuen bilera bat egingo zutela lapurra harrapatzeko plana adosteko. Baina zaila egin zitzaion, zeren jende guztiak uste baitzuen lapurra gaizkile arriskutsu bat zela, eta etxetik ateratzea debekatu zuten gaizkileak beren umeak bahitzeko beldurrez. Beraz, erabaki zuten bilera ez-kutuan egingo zutela.

Iritsi zen bilerako eguna eta ordua eta elkartu ziren laurak baina, ongi pentsatuta ere, bururatu zitzaion ideia bakarra walkie talkie bana hartzea izan zen zerbait ikusten bazuten abisatzeko.

Luka, Kaia eta Aimar ez zituzten harrapatu etxetik ateratzerakoan, baina Zoe bai. Eta zigorra jarri zioten. Terraza garbitzea! Eta terraza garbitzen ari zela, zer aurkituko eta... katu oinatzak! Azkar-azkar walkie talkieak hartu eta ikusitakoa kontatu zien lagunei.


Lagunak bere txera iritsi zirenean, oinatzan atzetik abiatu ziren. Iritsi zirenean zer aurkituko eta... Katu bat desagertutako gauzeekin!

Berehala ulertu zuten katua kale-katua zela eta gauza horiek behar zituela bizi-
tzeko; beraz, esan zioten:

–Nahi baduzu gure etxera etorri zaitezke, horrela denok erabiliko ditugu gauza
horiek.

Katuak onartu zuen eskaintza eta zoriontsu bizi izan ziren.

Katu, katu ipuina bukatu.



19



UR
IRAZUSTA
OSTOLAZA
Maio Txiki

AUPA PALESTINAKO HAURRAK

Duela urte asko Palestinan gerra hasi zen, israeldarrek Palestina kendu nahi zielako. Haur, heldu eta gazte guztiak hiltzen hasi ziren. Etxe, ospitale zein kaleetan bonbak botatzen hasi ziren eta Palestina suntsitzen hasi ziren.

Palestinaren alde manifestazioak eta kontzentrazioak egiten hasi ziren baina ez zuten lortu.

Palestinarrak ez zekiten zer egin, zeren egunero bonbak botatzera etortzen baitziren israeldarrak eta beren burua defendatzen saiatzen ziren baina ezin.

Egun batean, hainbat herrialdetako haurrak elkartu ginen eta ideia bat izan genuen.

Zergatik ez ditugu gauzak berreraikitzen!

Etxeak, dendak eta ospitaleak eraikitzen hasi ziren. Egun, aste, hilabete eta urteak pasatzen hasi ziren. Poliki-poliki belarra eta fruta arbolak hazi ziren. Errekak ere sortzen hasi ziren eta handik aurrera gustura bizi izan ginen.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Palestinako plazan.





**ZIHARA
ASTARLOZA
ETXEBERRIA**
Jazima

GALDU ZIREN TXAKURRAK AGERTU DIRA

Euskal Herriko herri txiki batean Auritz izeneko agure bat bizi zen. 40 txakur zituen. Oso potoloa zen eta babarrunak oso gustukoak zituen. Auritzek ez zuen etxerik eta basoan bizi zen, oso diru gutxi zuen, erreka ura edaten zuen egarria zuenean.

Egun batean babarrunak jan behar zituen eta oso gutxi zituen; orduan herrira joan behar zuen babarrunen bila. Lehenago, gelditzen ziren babarrunak bukatu behar ziren eta bukatzeko txakurrei eman zizkien. Oso diru gutxi zuenez, txakurrak lotzeko sokarik ez zuen eta txakurrak aske eramaten zituen.

Herrian babarrun pila erosi zuen; ze bestela egunero joan beharko luke herrira oinez babarrunak erostera. Basora bueltan zetorrela, babarrunetan kontzentratua zegoen alerik ere ez erortzeko, eta txakur bakar batekin iritsi zela konturatu zen. Pentsatzen zuen beste txakurrak ezkutatu egin zirela.

—Eta nire beste 39 txakurrak non daude?

Babarrun asko jan zituztenez, puzker pila botatzen

zituzten. Auritzekin iritsi zen txakurra baso guztitik bidali zuen puzkerrak usaintzera. Halako batean, txakur bat aurkitu zuten eta haren atzetik beste 38ak.

Eguna ongi amaitzeko babarrunak afaldu zituzten eta euren abenturak elkarri kontatu zizkioten.

ETA KATU KATU TXAKURREN PUZKER USAINAK JARRAITU!





**MALEN
PIRES
ARRASTUA**

Tipulatxo

TIPULA GERUZAK

Bazen behin tipula bat Oiartzungo baratze batean bizi zena. Tipula bakartia zen, ez zuen lagunik.


Egun batean lagun bila irten zen. Lehenengo, tomateen ilarara; han denak oso koloretsuak zirela konturatu zen; tipularen azala, berriz, marroi tristea zen eta ezin zirela konparatu ohartu zen. Orduan, bere azalaz lotsaturik, kendu egin zuen, barrukoa koloretsuagoa izango zela pentsatuz.

Ondoren, kalabazen ilarara joan zen. Haien azala gogorra zela ikusi zuen; bere azal fina ikusirik, ezin zirela konparatu konturatu zen. Bere azal fina kendu zuen, barrukoa sendoagoa izango zela pentsatuz.

Jarraian, berenjeren ilarara joan zen. Han denak oso distiratsuak ikusi zituen; berriz bere azal zuria haienarekin konparatu zuen eta beste geruza bat kendu zuen. Barazki batekin konparatzen zen bakoitzean, geruza bat kentzen zuen.

Egun batean biluzik gelditu zen eta tipulak hotz handia pasatzen zuen. Aza batek bere hosto tartera joateko gonbita egin zion. Azaren hostoak ez ziren ez koloretsuak, ez gogorrak ezta distiratsuak ere, baina goxotasuna eman zioten. Handik aurrera aza eta tipula lagunak izan ziren eta elkar babestu zuten.

KATU-KATU IPUINA BUKATU!



Handwritten signature or initials, possibly "X. L.", located below the main drawing.



**EKHI
MANTEROLA
SALABERRIA**
Unax

LIBURUAN SARTUTA

Ostiral gau batean, Aiur bizi zen. Oso graziosoa zen eta irakurtzea gustatzen zitzaien.

Egun batean, Aiur irakurtzen ari zela, mitologia liburu batean sartu zen. Lagunak iritsi zirenean, Irai, Unax eta Ekhi, gelara joan eta liburuan sartu ziren.

Aiur, Irai, Unax eta Ekhik topo egin zuten eta Iraik esan zuen:

—Goazen esploratzera!

Eta Unaxek eta Ekhik esan zuten:

—Bai goazen! —eta joan egin ziren.

Animalia pila bat aurkitu zituzten: dragoiak, pegasoak, zaldi gizona, suzko arranoa, Tartalo... Aiurri Pegasoak gustatu zitzaizkion gehien eta Pegasoak ikustera joan ziren. Bat-batean konturatu ziren Pegaso kume jaioberrira zegoela. Gero, Pegasoan hegan joan ziren zuhaitz batera. Erraldoia zen, baina ondoan, zuhaitz txiki bat zegoen, ura behar zuen. Orduan, Unaxek esan zuen:

—Goazen zuhaitz barrura! —eta joan egin ziren.

Han bost iturri zeuden, batean sua zegoen, bestean haizea, bestean ura, bestean natura eta bestean ur magikoa.

Eta Iraik esan zuen:

– Ura hartu behar dugu.

Eta hartu egin zuten.

Zuhaitzari ura bota zioten, baina berdin geratu zen. Berriro sartu ziren eta ur magikoa hartu zuten eta handitu egin zen. Zuhaitzetik atera ziren eta ibaira joan ziren, eta han Nessi aurkitu zuten.

Eta katu-katu, Pegasoan hegan bukatu.





**UNAX
SARRIEGI
MADARIAGA**
Diplodokus

AZOKA EGUNA

Antzinako Euskal Herrian, Oiartzun Izeneko herri txiki batean pertsona bitxi bat bizi da, Basajaun. Handia, erraldoiak bezala, ilea oso luzea du eta asko, lehoiek baino gehiago. Bere izenak dion bezalaxe, basoetako jauna da, basoak zaintzen ditu eta naturarekin ondo moldatzen da.

Basajaunek lagun asko ditu, herritarrak, intxixuak, sorginak, basandereak, dene-tik du. Bi urtetik behin herriz aldatzen da, oso pazientzia gutxi duelako.

Hogei urte zituenean hasi zen Euskal Herritik bidaiatzen. Lehenengo Donostiara joan zen, gero Gernikara, ondoren Lesakara eta azkenik, Oiartzunera. Handik ez da mugitu. Esaten duenez, oso gustura dago jendearekin, asko gustatzen zaizkio bertako mendiak, eta beretzat bikaina da herri hau.

Egun batean, Basajaunek gogoratu zuen hamabost egunetara bere urtebetetzea zela. Zerbait berezia antolatu nahi zuen, baina oso berezia, bera baino bereziagoa.

—Badakit zer egin, azoka bat egingo dut! —esan zion Basajaunek bere buruari.

Hor hasi zen herri guztiari esaten, baina konturatu zen nekagarria zela. Orduan pentsatu zuen kartelak egitea informatzeko, non, noiz eta zertarako zen. Basajau-nek intxixuei eman zien beren auzoetan jartzeko, tokirik ikusgarrietan. Elizalde-koak udaletxean, Iturriozkoak Beheko Soroan, Gurutzekoak parkean, Ergoiengoak elkarteetan, Karrikakoak frontoian, Altzibarrekoak errekan, Ugaldetxokoak lurrita-ko erroetan eta Arraguakoak goiko eskolan.

Antolaketa finaren ondoren, azoka eguna iritsi zen. Sorginek postu bat jarri zuten edabeekin, basandereek ukenduak, intxixuek egurrezko guraizeak, basajaunek sendabelarrak eta herritarrek ogia, esnea, arropa...



Herritarrek oso pozik zeuden, eguzkia bera baino gehiago. Hemendik hartu, hortik, handik, denek Basajauni esaten zioten oso ideia ona eduki zuela.

Intxixuak hor zeuden bihurrikeriak egiten, normala den bezalaxe.

–Erosiko al dizkidan guraize hauek? Orain arte ez dinat alerik saldu eta! –esan zuen intxixu batek.

–Ados, zenbatean? –galdetu zuen neskatxak.

–Bost dukat, erregu.

Hori egiten zuen hurbiltzen zen bakoitzarekin.

Hor iritsi zen Tartalo siestatik esnatu berri. Tartalo gauzak erosten hasi zen, ukenduak, edabeak, esnea, ogia... Haserretu egin zen intxixuek ez zeukatelako gurailerik eta materialik ere ez. Etxera joan zen plan bat pentsatzera.

Tartalok zerbait bihurria egin nahi zuen. Lehenengo pentsatu zuen Leharreko al-dapatik ura botatzea, plaza urez gainezka egiteko. Baina geroago pentsatu zuen ez zela urez gainezka geratuko, aldapa behera dagoelako. Zerbait maltzurragoa egin nahi zuen. Bi aldiz pentsatu ondoren, bere garajera joan zen gasolina eta pospoloen bila.

Gauzak eskuetan hartu eta hor joan zen. Oiartzuni bira eman zion su emateko modukoa zen toki bat bilatuz. Gasolina bidoiak, ordea, punta zulatua zuen eta toki guztitara isuri zitzaion. Gero toki zehatz batera bota zuen gelditzen zitzaiona. Ondoren pospoloarekin su eman zion zati horri eta bat-batean Oiartzungo inguru guztia sutan zen.

Basajaunek plazatik dena ikusi zuen eta sorginei zera esan zien:

–Soporgipinapak! Epegipin epedapabepe bapat hepegapan epegipitepekopo! Hapartaparapa heperripitipik apateperapakopo gaparapa!–

Basajaunek, bitartean, adarra jo zuen bozgorailua bezain ozen, herritar guztiak azokara gerturatu eta gertatutakoaz informatzeko asmoarekin.

Elkartutako guztiek edabea edan zuten. Blue-bull izenekoa zen eta denei banatu zien. Bat-batean, hegalak atera zitzaizkien eta horrekin herritik irten bezain pronto, Tartalo harrapatzeari ekin zioten. Harrapatutakoan sokaz lotzea baino hobe izango zutela pentsatu zuten Kataxulon psikologo batekin giltzapetzea.

Herri guztia erre zen arren, denen artean berreraiki zuten, eta bertako biztanleak tarteka Tartalori bisita egitera ere joaten ziren Kataxulora, sendatzen laguntzeko eta herritarren goxotasuna sentitu zezan.

**AURITZ
AZURMENDI
ZAPIRAIN**
Pogacar



ARRATOIEN INBASIOA!

Bazen behin Gaztatxo izeneko sagu bat zuri-zuria zena eta Txalaka errotan bizi zen.

Bere anaia Bonbon taldeko liderra zen, Idiazabalekin batera bizi zen.

Bere anaia Bonbonekin jolastea gustatzen zitzaion.

Egun batean, egunero bezala, Gaztatxo Txalaka errotako zulo batetik kanpora atera zen eta bere baratzerara joan zen. Marrubi gozoak jaten ari zenean, 14 arratoi ikusi zituen. Inguruko zabortegi batetik ihes egindakoak ziren. Gaztatxo, berehala, kideei abisatzera joan zen. Ez zuen bere familia aurkitzen eta larritzen hasi zen. Orduan, negarrez, baserriko harri batean jarri zen, baratzerara begiratu zuen eta guztia suntsituta zegoela konturatu zen. Etsita, bakar-bakarrik zegoela pentsatu zuenean, bere atzetik, belar artetik, bere anaia Bonbon agertu zen. Ikaragarritzko poza hartu zuen. Baina aita eta beste kideak arratoiek bahitu zituztela kontatu zion Bonbonek.

Bi anaiak zer egin ez zekitela zeuden, etsita eta kezkatuta. Halako batean, zabortegira begiratu zutenean, katu batengandik ihesi zihoan arratoi bat ikusi zuten eroa bezala korrika zihoana. Une horretan Gaztatxori plan bat bururatu zitzaion, zabortegiko katuari laguntza eskatzea.

–Lagun nazakezu nire familia askatzen eta arratoiak errotatik botatzen?

Esnetxo katuak ez zeukan argi. Saguak ez zitzaizkion inoiz gustatu izan, baina aurrean zituen bi sagu txiki eta bihurri haiek pena eman zioten eta laguntzea



erabaki zuen. Orduan, denen artean, plan bat pentsatu zuten, Esetxo katua arratoiaren aurka borrokatzen jartzea eta, bitartean, Gaztatxo eta Bonbon besteak salbatzera joatea. Baina ez zekiten haien kideak non zeuden. Hala ere, Esetxok bazekien nola jakin. Planaren lehen zatia burutzeko, Esetxok bi arratoi mozturro ekarri zituen, jantzi eta arratoiaren zabortegiko gordelekura sartu ziren. Han dena zikin-zikina zegoen. Parean hainbat arratoi zeuden eta, halako batean, haietako bat konturatu egin zen ez zirela benetako arratoiak eta haien ihesi hasi ziren. Bonbon eta Gaztatxo korrika eta larriturik ihesi zebiltzan gordelekuetik barrena. Txoko bat topatu eta gorde zirenean, bat-batean, haien buruak arratoi inguratuak ikusi zituzten. Beraiek ere bahituta zeuden.

Bitartean, Esetxo katua bi saguen zain zegoen, baina ez ziren inondik ageri. Denbora pasatu ahala, zerbait ondo ez zihoala konturatu zen. Haien bila joatea erabaki zuen. Zabortegian zelatan jartzean, arratoien arteko elkarrizketa entzuten zuen.

–Azkenean, Txalaka errotako sagu guztiak bahitu ditugu. Ez da bat bera ere geratzen. Orain guztia guretzat izango da.

Esetxok ihesi alde egin zuen eta basora abiatu zen laguntza bila. Bertan, bere lagun basakatuarekin eta hontzarekin hitz egin zuen, arratoiak jatea gustuko baitzuten.

–Anaia, gonbidatu zure lagun guztiak arratoi banketera, gauean zaborteziaren atzean geldituko gara! –oihukatu zuen Esetxok.

Gauean, hontzak esnatzen direnean, esan bezala, basakatua, hontza eta katuak zaborteziaren atzean elkartu ziren.

–Jatera! –oihukatu zuten.

Esetxo eta bere lagunak zaborteziaren sartu ziren. Esetxo, berehala, lagunak salbatzera joan zen. Bizkar gainean, zaldia balitz bezala, errotara eramane zituen. Bitartean, arratoiak borroka bizian ari ziren. Azkenean, hontzak, katuek eta basakatuak arratoi guztiak jan zituzten.

Gertaera hori pasatuta, egun zoriontsuak pasatu zituzten Txalaka errotan, dagoeneko ez ziren arratoien beldur. Guztia eraberritu zuten: zabortezia jolas-parke bihurtu zuten. Garaipena ospatzeko, festa handi bat antolatu zuten. Hontza, basakatua eta katuak gonbidatu zituzten. Saguek baratze barazkiekin jaki goxoak prestatu zituzten.

Siesta eder bat egin zutenean, errotako kanalean bainatu ziren. Une horretan, errotariak gari aleak ehotzeko asmotan, errota martxan jarri zuen. Kanaleko ura, saguekin batera, husten hasi zen eta saguak desagertu egin ziren errekan behera.

Esaten dute dagoeneko Txalaka errotan ez dela sagurik bizi eta Pasaiako arrantzaleek egur baten gainean ikusi izan dituztela Txalaka errotako saguak. Sagu horiei buruzko abentura gehiago ezagutzeko, laster izango dituzue berri gehiago!



**NOA
ZABALEGI
ALBERRO**
Txuri

ORRI ZURIAREKIN ITSUTUTA

Kaixo! Ni Udane naiz, 9 urte ditut eta Oiartzungo Ugaldetxo auzoan bizi naiz. Etxean 5 pertsona bizi gara: amak Olatz du izena eta oso langilea da, aitak Beñat eta oso maitagarria da, ahizpa zaharrena da, Laida, guztietan arduratsuena eta Ekain etxeko txiki eta bihurria da.

Udara honetan Dordogne eta Île de Ré inguruan ibili gara oporretan gure auto-karabanarekin. Autokarabanak ere badu izena, Laida eta bion artean erabakia, Oporrotxo, oporretarako etxea.

Baina oporrak bukatu egin dira eta ikastolan hasi gara berriz. Aurten, LH4 hasi dut, Nahiarekin jarraitzen dut eta horrek lasaitasuna ematen dit, berarekin oso gustura nagoelako. Hala ere, ikasturte hasierak urduritasuna eragiten dit.

Aurten liburu berriak izango ditugula esan digute eta ez dakit ikasgai berriekin ondo moldatuko naizen. Lagunekin arazoak izateak ere arduratzen nau, ez nuke nahi gure artean haserreak izatea, ez zaidalako ez ni ez inor bakarrik ikustea gustatzen.

Bada beste gai garrantzitsu bat urduritzen didana: Prosa eta Poesia lehiaketa. Nahiak lehengo astean sortu behar dugun ipuinaren eskema eman zigun: protagonista, historiaren lekua eta garaia, beste pertsonaiak, bere nahia, gainditu beharreko oztopoak... Orria zurian zegoen eta nire burua hutsik. Ez nekien zer idatzi, sormena eta ideiak itzalita nituen. Lagunak idazten ikusten nituen eta negargura sartu zitzaidan. Ikastolako txirrina entzun nahi nuen etxera ahal zen azkarrena joateko.

–Zer gertatzen da, Udane? –galdetu zidan amak ikastolatik atera nintzenean.

–Prosa eta Poesiako ipuinarekin hasi gara eta ez dakit zer idatzi –erantzun nion nik negarrez.

–Urduritasunak ez dizu lagunduko ipuina idazten, lasaitzen saiatu eta sortuko dira ideiak –esan zidan amak lagundu nahian, baina nik ideiarik gabe jarraitzen nuen hala ere.

Arratsalde horretan, eskema ahal nuen bezala bete nuen etxean, baina ez nengoen nire ideiekin gustura. Hurrengo egunean, euskarako orduan bete beharreko orri zuria eman zigutenean, ez zitzaidan ezer bururatzeko. Eskemari begiratzeko nion behin eta berriz, baina hala ere ideiarik ez buruan. Lagun batzuek ipuina aurreratuta ekarri zuten etxetik eta idatzi eta idatzi ikusten nituen, ideiak pilatuko balitzaizkie bezala.

–Ezin al didate ideia horietako bat niri eman? –pentsatzen nuen nik orri zuriari begira.

Gau hartan, urduritasunak esnatu egin ninduen gau erdian. Prosa eta Poesia lehiaketa amesgaizto bihurtu zen. Esna nengoela, leihotik begira jarri nintzen. Bi hontz ikusi nituen etxe ondoko zuhaitz batean. Bata bestea baino handiagoa zen eta txikia niri begira zegoen bere begi biziekin. Orduan, haien bizitza nolakoa izango ote den pentsatzen jarri nintzen. Adibidez, nola sentituko den hontz txiki hori ama janari bila joaten denean? Urdurituko al da bakarrik geratzen denean? Auskalo! Eta konturatu gabe lo hartu nuen berriro.

Hurrengo egunean, amesgaizto berdinak esnatu ninduen. Oraingoan, leihotik begira nengoela bizilaguna ikusi nuen lanetik bizikletan iristen gau ilunean. Ekaitza ari zuen, xira eta galtzak kanpoan astindu eta etxera sartu zen. Nino eta Nina katuekin eta Kira txakurrarekin bizi da, zain zituen denak etxeko atarian. Asko hitz egiten du gure bizilagunak bere katu eta txakurrarekin, pertsona bakartia dela esango nuke, baina inoiz sumatuko al du beste pertsona baten falta etxean? Edo soberan izango ditu gizakiak? Auskalo! Eta konturatu gabe lo hartu nuen berriro.

–Udane, esnatu! Berandu zabilta! –esan zuen aitak.

–Ez dut ondo lo egin –erantzun nuen nik ezin esnatu.

–Zer gertatu zaizu ba ondo lo ez egiteko? –galdetu zuen amak.

–Prosa eta Poesia lehiaketarekin ametsetan hasten naiz eta esnatu egiten naiz. Bi egun daramatzat leihotik begira ezin lo hartu –esan nion.

–Benetan? –galdetu zidaten biak.

–Gauetz ere gauza asko gertatzen direla konturatu naiz –erantzun nuen.

Eta bat-batean, honela esan zidan Ekainek:

–Eta zergatik ez duzu gauean ikusitakoaz idazten zure ipuinean?

–Oso ideia ona! –erantzun zioten gurasoek Ekaini.

–Eskerrik asko! –esan nion nik estu besarkatuz.

Ekainek hori esan arte, ez nintzen konturatu batzuetan gure urduritasun, ardurara eta beldurrek ez digutela ikusten uzten bizitza kontatu daitezkeen istorioz beteta dagoela.



**TELMO
RUIZ
TOLOSA**
Mimi



EGIAREN ISLA

Kurtso bukaerak beti iruditu zaizkit oso bereziak. Maiatza eta ekainaren hasiera ziztu bizian pasatzen zaizkit. Izan ere, milaka lan eta azterketa egin beharrak bestetarako denbora ederra lapurtzen digu. Agian, duela lau urte, ekainaren erdialdera, Eneko eta biok bizi izandakoak zerikusi handia izango du urte sasoi honetan izaten dudan fasean.

Oraindik argi eta garbi gogoratzen dut nire lagun Eneko. Abizena Astigarraga zuen. Luze xamarra iruditu eta berehala hasi ginen Asti deitzen. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lau urte beste ikastetxe batean egin zituen, eta hamar urterekin ezagutu genuen klasekide berria.

Atentzioa deitzeko modukoa zen Asti, altua, argala, beltzarana eta adierazgarri egiten zuen begirada sakonekoa. Oliba koloreko begi haiek askotan, ustekabeen, urrunera begiratzen hasi eta jende artetik aldentzen zuten Asti une batean. Bakoitzak berea duen ezaugarriren bat baldin bada, begirada triste hura zen, du-darik gabe, Astirena.

Nire abizena Azpiazu izanik, eta klasean alfabetoaren ordenan esertzen ginenez, lehenengo egunetik nire ondoko mahaian izan nuen Asti. Berehala egin ginen lagun minak, nahiz eta izaera desberdinekoak izan.

Ni pentsakorragoa naiz, ekintzara jo aurretik gauzak bi aldiz pentsatzen dituen horietakoa. Asti, berriz, indartsuagoa zen, baita bihurria ere.

Ni ilehoria eta bera beltzarana izanik, tutoreak Zipi eta Zape deitzen gintuen. Behin amonari galdetu nion:

—Amona, ezagutzen al dituzu Zipi eta Zape?

–Bai, noski, 70eko hamarkadako komiki ospetsu bateko protagonistak ziren. Bi-kiak ziren, Zipi ilehoria, arduratsuagoa, eta Zape beltzarana, oso bihurria. Hala era, oso bihotz onekoak biak. Garai hartan, 10 pezeta balio zuen komiki bakoi-tzak. Bost lagunen artean aurreztutakoarekin bat erosten genuen kioskoan. Gero, etxez etxe ibiltzen zen komikia, txandaka irakurtzen genuen.

Amonak ez zuen Zipi eta Zaperen komikirik aurkitu ganbarako traste artean, bai-na 25 pezetako txanpon bat bai eta niretzat eman zidan oroigarri gisa.

Hurrengo egunean, amonak kontatutakoa azaldu nion Astiri. Seguruenik, bere etxean ere ezagunak egingo zitzaizkien Zipi eta Zaperen abenturak, baina Asti begirada triste haietako batean galdu zen momentu luze batez. Ez nion bere fa-miliari buruz gehiago galdetu nahi izan.

Kirolari aparta zen Asti. Futbola, atletismoa, esku pilota... denean ona. Hala ere, gustukoen zuena marraztea zen. Karikatura barregarriak egiten zizkion edonori, baita bere buruari ere.

Dohain hori aprobetxatuz, Elkar liburu dendak Gabonetan ipuinen ilustrazio lehia-keta egiten duela esan nion, eta kostata, parte hartzera animatu zen azkenean. Baita irabazi ere, nola ez!

Ipuin sorta bat oparitu zioten Elkar-ekoek, eta horretaz gain, lau pertsonarentzat jolas-parke batera joateko sarrerak. Guraso eta anaiarekin egun-pasa ederra egiteko plana, jakina!

Hilabeteak azkar pasatu zitzaizkidan ikasturte hartan eta ekain erdialdean galde-tu nion Astiri zer moduz pasa ote zuen jolas-parkean.

–Oraindik ez gara joan...

–Nolatan ba?

Baina ez nuen erantzunik jaso. Hurrengo egunean, jolasgaraian, Aitor, Dani eta niri larunbatean jolas-parkera joateko gonbidapena egin zigun eta baietz esan genion berehala, berriz ere begirada triste hartan galdu ez zedin!

Parketxeko atea zabaldu aurretik hortxe ginen puntual lau lagunak. Denbora topera aprobetxatu nahi genuen, arratsalderako ekaitza esana zegoen eta.

Goizean gelditu gabe ibili ginen batean eta bestean, eta bazkaldu ondoren, la-saiagoak ziren ekintzetan murgildu ginen. Halako batean, zer ikusiko eta Zipi eta Zape-ren etxea! Barrez lehertzen hasi ginen...



–Asti eta Azpiazu dirudite! –esan zuen Danik.

–Bai, berdin-berdinak dira!

–Goazen sartzera! –esan zuen Asti-k.

Labirinto antzeko bat zen, froga batzuk pasa behar ziren tartean. Helmugan, «arratoien logela» jartzen zuen.

Amonak kontatu zidana etorri zitzaidan burura: Zipi eta Zaperenak, gaizki portatu eta bihurrikeria gehiago egin ez zezaten, logela hartan sartzeko mehatxua egiten omen zien beti, baina ama ere bihotz onekoa izaki, eta inoiz ez zituen «arratoien logela» hartan utzi. Beraz, parketxeko labirintoaren bukaera misterio hutsa zen dezentzat.

Asti-k arazorik gabe gainditu zituen labirintoko probak eta «arratoien gela» parean gelditu zen. Hurrengoan ni iritsi nintzen eta hantxe gelditu ginen biok sartu edo ez, pentsakor.

—Goazen ba... —esan zidan Asti-k

—Seguru al zaude? Auskalo zer dagoen hor barruan!

Baina erantzuteko astirik gabe, besotik heldu ninduen eta gelan sartu ginen. Zorionez, han ez zen paretetan margoturiko arratoi irudiez gain beste animaliarik.

Ispiluz betetako gela bat zen. Erdi-erdian, Egiaren Isla jartzen zuen ispilu dotore bat zegoen.

Ni bazterreko ispilu txiki baten parean nengoen: norberaren gorputza erabat eraldatzen duten horietakoa. Asti, berriz, Egiaren Islan.

Bat-batean, gure herria agertu zen Astiren aurrean, gure eskola, gure gela, gure tutorea, eta amaieran, Astiren etxea. Egongela zirudiena agertu zen eta leihotik begira, eserleku zabal batean, emakume bat. Haren begi berdeak eta begirada galdua ikusita, berehala asmatu nuen Astiren ama zela. Magalean paper bat zuela ageri zen, mediku txosten bat zirudien eta “Osasun mentaleko sarea” irakur zitekeen goian.

—Egin dezagun ospa hemendik! —esan zidan haserre Astik.

Daniri eta Aitorri esan genien «arratoien gela» hark ez zuela sartzerik merezi, txorakeria hutsa zela.

Baina nabari geratu zen egun hartako barre eta txantxak bukatu zirela Astirentzat eta, era berean, niretzat ere bai.

Ekain bukaerako 10 azterketetatik, bi gainditu gabe utzi zituen Astik. Benetako ezustekoa izan zen.

Nik banekien sekretu gisa gordeta zuela bere amaren gaixotasuna eta lagun mina izanik ere, ez nekien nola lagundu.

Zorionez, osasun mentalari eta emozionalari buruz hitz egitera etorri zitzaigun Osakidetzako lantalde bat, eta psikologo talde baten kontaktua eman ziguten denei. Terapia luze baten ondoren, ama-seekek beren betiko harreman ona berreskuratu zuten eta nire lagun Astik ni amorratzeko bakarrik erabiltzen zuen orduz geroztik bere begirada sakon eta galdua.

—«Arratoien gelara» eramango zaitut —egiten nion mehatxu nik.

TEO
BARRIOLA
PIKABEA
Barri



ERRUDUN

Zoragarria. Gozoa; baina, aldi berean, mikatza. Zapore indartsua; baina, aldi berean, leuna. Nik desiratutako biktimaren odola nire eztaeratik behera garraiatzen sumatzen dut, nire ahoari gero eta gehiago eskatuz.

Zein ahula dirudien.

Hortxe, nire etxeko sotoan, soka batetik zintzilik. Bihotzaren pultsazioak gero eta motelago doazkiola nabaritzen ditut.

Iritsi da ordua.

Iritsi da heriotza.

Sotoko erlojuak 12:00ak direla adierazten dit. Amaiera iritsia da. 12:00etan, zehatz-mehatz, bosgarren biktima eroria da. Eta berriz ere, heriotzaren arima hotza satora sartu eta gorpuaren sentimendu, arima eta izaera berarekin daramatza sumatzen dut. Segidan, isiltasuna dago. Betirako iraungo duen isiltasun amaigabea.

Nor naizen? Ni neu, loritz. Eta hiltzaile bat naiz. Txikitan jasan dudan jazarpen etengabeak nire burua zoratu duela esan daiteke, izan ere, ez da gezurra. Orain bai; nire hildakoak aurkeztuko ditut.

Lehenik eta behin, Laila.

Nire neska-laguna izan zitekeen, 2025eko otsailaren lehen ez banio labana bat sartu. Hala ere, oso ziur nago haren odola dastatzearen gozamenak merezi izan zuela. Eta, orain, hemen dago. Bere gorpua nire sotoan zintzilik dago; bere gorpu fin, hauskor eta benetan ederra.

Bigarrena: Jon.

Txiki-txikitatik nire lagun izandakoa, baina behin LH 6 hasita, nire jazartzaile nagusi bihurtu zena. Nire sotoan dago; nire aitona eraikitako egurrezko aulki batean eserita, niri begira, bizitzen jarraitzeko aukera ukatu nionetik hor dago. Une batetik bestera malkoak isurtzen eta garrasika hasiko dela dirudi.

Nire pentsamendu sakonenetan murgiltzen hasi naiz: taberna horretan... Egia esateko, Jon ez zegoen lekurik aproposenean, ezta ere une aproposenean. Etxerantz abiatu zen bezain pronto, inork iluntasunean ikusten ez gintuela ziurtatu ondoren, Joni sekulako labankada sartu nion lepotik. Segituan bere gorputz zabal, ilegorri eta indartsua lurrera erori zen, sekulako kolpea hartuz.

Hirugarrena: Mattin.

Nire bizilagun kuttuna, txikitatik berarekin orduak eta orduak igarotzen nituen jolasean.

Nire sotoko atearen aurrean dago, sartzen den edozeini infernua dagoela ohar-taraziz eta ongietorria emanaz.

Nire jazartzaileekin barrez eta niri iseka egiten hasi zen arte, niretzat anaia bat bezalakoa zen, konfiantzazko lagun bat.

Dirudienaz, ez zuen inoiz nire lagun izateko interesik izan, bere amaren eskakizuna bakarrik betetzen ari zen, eta behin lagun minak egin ginenean, umiliatu, barre egin eta fisikoki eraso zidan, nire gelakide guztien aurrean.

Bizitzak bere jirabirak ematen ditu, eta zurekin gaizki portatu zirenei mendekua emateko aukera ematen du. Nire kasuan, mendekua portalean izan zen, eskaile-
ren arteko zulutik, ó. pisutik behera bota nuenean.

Laugarrena: Nahiare.


Sotoaren erdian dago bere gorpua, gorantz etzanda, argia sartzen den toki bakar-
rerantz burua biratuta duela.

Hilketa hau nire zailena izan da, eta horregatik dago gelaren erdi-erdian kokatuta
bizkarra eman ez zidan lagun bakarra.

Aparkaleku batera herrestatu nuen eta bertan, lepotik heldu eta bere gorputza
pixkanaka mugimendu gabe gelditzen hasi zen, gelditzen zitzaion indar apurra-
rekin nire eskuetatik ihes egitea lortu zuen arte. Korrika hasi eta laguntza eskatze-
ra joan zen. Zorionez niretzat, patrikan gordeta nuen labana atera eta jaurtiketa
zehatza egin nuen; labanak bere burua zeharkatu zuen.

Nire biktimei buruz hitz egiteak poza eta harrotasuna sortzen dizkit.

Istorio honetako errudunak argi dago nortzuk diren: nire txikitako jazartzaileak.



Inoiz ahaztuko ez ditudan oroitzapenak utzi zizkidaten; ni lurrean jipoituta. Ni, umiliatuta. Ni, malkotan. Ni, tratu txarrak jasotzen. Eta nire mailakideek nitaz barre besterik ez zuten egiten.

Ni ez naiz erruduna. Ni ez naiz gorpu hauen guztien erruduna. NI EZ NAIZ GERTATZEN ARI DEN GUZTIAREN ERRUDUNA! NI EZ NAIZ ERRUDUNA!

Lasaitu eta indarberritzen nauen gauza bakarra odola da. Behin nire biktimak guztiz akabatzen ditudanean, beraien odola dastatu eta gozaten dut. Nire ustez, zenbat eta odol zaporetsuagoa, orduan eta erailketa hobea da.

Eta hemen nago, sotoan.

Nire bosgarren biktimaren heriotzaren zain.

Denbora askoan desiratutako erailketaren zain.

Hori pentsatu eta bost minutura eroria da. Azkenean. Lortu dut. Bosgarren biktima hilda dago.

Zoragarria. Gozoa; baina, aldi berean, mikatza. Zapora indartsua; baina, aldi berean, leuna. Nik desiratutako biktimaren odola nire eztarritik behera garraiatzen sumatzen dut, nire ahoari gero eta gehiago eskatuz.

Zeinen ahula dirudien. Hortxe; nire etxeko sotoan, soka batetik zintzilik. Bihotza-
ren pultsazioak gero eta motelagoak direla nabaritzen ditut.

Iritsi da ordua.

Iritsi da heriotza.

Sotoko erlojuak 12:00ak direla adierazi dit. Amaiera iritsia da. 12:00etan, zehatz-
mehatz, bosgarren biktima erori da. Eta berriz ere, heriotzaren arima hotza so-
tora sartu eta gorpuaren sentimendu, arima eta izaera berarekin dramatzala
sumatzen dut. Segidan, isiltasuna dago.

Bat-batean poliziak satora sartzan dira. Barruan dagoen eszena ikusi ondoren,
aho zabalik gelditu dira, batzuk negarrez ere hasi dira. Bi astez bilaka aritu diren
pertsona guztien gorpuak daude soto barruan: Laila, Jon, Mattin eta Nahiare.

Niri mespretxuz begiratu didate.

Baina berandu da.

Ezin naute betirako espetxean sartu, izan ere, nire bizitza osoan infernu bat bizi
izan dut.

Gauza okerragorik ez dago.

Haien aurrean garrasi egiteko gogoa dut, baina ezinezkoa da:

NI EZ NAIZ HONEN GUZTIAREN ERRUDUNA! JAZARTZAILE MADARIKATUEN
ERRUA DA!

BERAIEK DIRA NIRE BURUKO ARAZOEN ERRUDUNAK! BERAIEK BAKARRIK, ETA EZ
BESTE INOR!

Oso harro nago azken erailketaz, jazarria naizenetik momentu hau desiratu izan
dut eta; azken biktima hau betirako desagerrarazteko irrikaz egon naiz. Pertsona
hau beste mundu batera joan eta inoiz ez bueltatzeko irrikaz. Eta, azkenean, lortu
dut.

Nire azken biktima aurkeztuko dut:

Ni neu.

**JOANE
LETE
CASTELRUIZ**
Lira



OROITZAPENAK

Uste dugun baino indar handiagoa dute oroitzapenek. Iraganak kontatzen dizkigun istorioak dira, iraganak guregan uzten duen lorratza. Iraganean ginenari esker gara orain garena, oroitzapenak dira horren lekuko. Baina, badira ahaztuak geratzen diren oroitzapenak, denborarekin desagertzen joaten direnak. Ahaztuak, galduak. Baina liburu hark erakutsi zidan oroitzapen horiek ere garen pertsona izaten lagundu dutela, azken finean, horiek ere iraganak aspaldian kontatutako istorioak dira.

Egun euritsu bat zen, zerua guztiz grisa dagoen egun horietakoa. Aterkia etxean ahaztea ideia txarra den egun horietakoa. Irakaslea azalpenak ematen ari zen, baina nik ez nuen ezer entzuten, nire pentsamenduetan murgilduta nengoen. Triste sentitzen nintzen, goizean amarekin izandako eztabaida nuen gogoan. Ematen zuen amak pentsatzen zuela oraindik bost urteko ume bat nintzela. Nire gelan hainbeste denbora ez egoteko esan zidan, berarekin egoteko, berarekin jolasteko, konpainia egiteko, hitz egiteko. Ez nuen inoiz hain desesperatua ikusi, hain amorratuta, hain... egia esan ez dakit oso ondo nola sentitzen zen. Momentu batez hunkituta sentitu nintzen. Besarkada bat emateko gogoia sartu zitzaidan. Baina ezin zuen horrela izan, ni ez naiz hain sentibera. Gelako txirrinak atera ninduen nire mundutik, poliki-poliki sartu nituen gauzak motxilan. Ez nuen etxera iritsi nahi.

Eskolatik atera nintzenean, nekatuta sentitzen nintzen, baina ezin nuen nire logelara joan, ez nire amari lehenago aurre egin gabe. Ez neukan indarririk horretarako. Orduan, herritik paseatzen hasi nintzen, edozein lekutatik paseatzen, ia inoiz zeharkatu ez nituen kaleak ezagutzen, edozer gauza eztabaida hura ahazteagatik. Momentu batean eskaparateak begiratzen hasi nintzen, interesatzen

ez zitzaizkidan eskaparate asko ikusi nituen. Liburutegi baten eskaparatean ere geratu nintzen. Eta hor, interesatzen zitzaidan liburu bat ikusi nuen. Niri gustatzen zitzaidan estilokoa; gainera, edizioa oso polita zen. Liburu-denda edo liburutegi antzeko horretara sartu nintzenean, atearen goialdean zegoen kanpaitxo batek jo zuen. Liburutegia oso zaharra zen, egur kolore ilun bateko baldaz estalita zituena pareta guztiak, baina erdialdean bata bestearen atzean zeuden baldazko armairuek pasilloak sortzen zituzten. Ez zen inor ageri. Isiltasun oso eta huts batek betetzen zuen liburutegi zaharra. Jakin-mina sartu zitzaidan bat-batean; horregatik, pasillo baten sartu eta liburuak begiratzen jarri nintzen.

Liburuetan murgilduta nengoen bitartean, denbora igaro eta igaro ari zen. Halako batean, zer ordu izango zen galdetu nion neure buruari. Liburutegiaren bukaeran zegoan mahaira gerturatzen hasi nintzen, pentsatu nuen, liburuzainarena izango zela. Erloju baten bila hasi nintzen, mahaian zeuden gauzen artean bilatzen. Boli-grafoz eta arkatzez betetako edalontzi bat, orri pila bat, grapagailu bat, zulagailu bat, itxura oso zaharreko artxibadore bat, liburu hautsi eta zaharrez betetako kaxa bat... ez zegoen ordenagailurik, ez gailu elektronikorik, horrek itxura zaharragoa ematen zion liburutegi horri. Denboran izoztua, galdua egongo balitz bezala.

Liburu zaharrek nire atentzioa erakarri zuten, haien artean kuxkuxeatzen hasi nintzen. Oso zaharrak zeuden liburuak. Ez nuen bat bera ere ezagutzen; egia esan, ez nekien gauza handirik literatura zaharrari buruz. Liburuak kaxatik ateratzen hasi nintzen, interesatzen zitzaidan baten bat bilatu nahian. Tapa urdin argi kolorekoa zeukan liburu batek erakarri zuen nire arretera, ez zeukan izenbururik, oso-oso potoloa eta handia zen. Ez zegoen hautsia, besteak ez bezala, baina hala ere, denetan zaharrena iruditzen zitzaidan. Ematen zuen denborak ez ziola minik ematen. Bazirudien sortu zutenean bezala zegoela, urteetan zehar, agian mendeetan zehar, berdin jarraitu zuela. Berezia zen liburua, oso. Ez dakit zergatik iruditu zitzaidan berezia, ez dakit zergatik nuen hain zaharra zen sentsazioa, baina liburu hark asko zekien. Horretaz ziur nago.

Ezin izan nion jakin-minari eutsi. Liburua ireki nuen.

Orriak horixkak zeuden, inguru marroiak zituzten. Tinta beltzeko letra fin eta elegante batek apaintzen zituen orriak. Izenak zeuden, izen asko, data eta guzti. Lehenengoan, «Jose Luis Zapirainek 1902ko maiatzaren 5-10ean galdua» jartzen zuen. Izenaren azpian testu bat zegoen, oroitzapen galdu bat. Baina momentu horretan ez nekien oroitzapen bat zela.

Gogo handia dut nire herrira itzultzeko, nire familia ikusteko, liburutegi hau irekitzerakoan irabazten dudan diruarekin nire familia mantendu ahalko dut.



«Margarita Perezek 1902ko maiatzaren 6-8an galdua»

Munduan zehar bidaiatu nahi dut, kontinente guztiak bisitatu. Ez dut etxean gelditu nahi, portura iristen denean barkua hartu eta mundu guztia zeharkatuko dut.

«Carlos Berasategik 1902ko ekainaren 1-6an galdua»

Nire tronpeta hartu eta oholtzara igoko naiz. Famatua egingo naiz eta munduan zehar joko dut tronpeta.

Harrituta geratu nintzen, ez nekien zer pentsatu. Seguruenik, idazle batek idatziko zuen hori guztia, batzuetan irakurleak nahasteko duten gogo horrekin. Baina nik nire sakonean ez nuen hori pentsatzen. Zer zen liburu hura? Liburuaren bukaera-

ra joan nintzen baina guztiz zuriz zegoen, orduan hitzak bukatzen ziren zatia bi-latzen hasi nintzen. Liburuaren bi heren baino pixka bat gehiago zeuden idatziak. Azken izena irakurtzean ia atzeraka erori nintzen, nire izena jartzen zuen.

«Izar Otegi 2025eko irailaren 7-23an galdua»

Amatxo ikusi nahi dut, triste nago. Berak bakarrik lortzen du ni lasaitzea, bere ondoan arazo guztiek pisua galtzen dute. Etxera iritsi eta haren ondoan eseriko naiz, besarkada bat emango diot.

Baina zer zen hura? Irudi pila bat etorri zitzaizkidan burura, baina denetan amarekin nengoen, eta denetan pozik. Nire urtebetetzetan, oporretan, besoa apurtu nuenean... denetan amarekin. Liburura begira geratu nintzen, momentu batetik bestera nire izena desagertu egin zen, testuarekin batera. Ez dakit momentu horretan guztiz ulertu nuen zer zen liburu hura, baina orain pentsatuta, konturatzen naiz oroitzapenak zirela, liburutegi horretan zeuden bitartean jendeak ahaztutako oroitzapenak, oroitzapen galduak. Momentu horretan nik ez nuen guztiz ulertu, baina bat-batean ahots bat entzun nuen.

—Ikusten dut aurkitu duzula. Nik ez nuen inoiz ireki; egia esan, iraganak mina egingo zidala pentsatzen nuen. Ikusten dudana bezala, ni baino pertsona indartsuagoa zara. Batzuetan iraganak min eman dezake, beste batzuetan gogoratzeak lagundu egiten digu. Nahiz eta oroitzapenak ahaztu, beti gure barruan jarraitzen dute hor nonbait gordeta.

Ezin izan nuen ezer gehiago entzun, korrika atera nintzen liburutegi hartatik, iraganarerantz korrika. Hobeto esanda, iragana eta oraina elkartzera. Etxera iritsi eta amari besarkada bat eman nion, gogoratzen.

**INTZA
MITXELENA
MENDIZABAL**
Dini



BEGIRA

Omarrek 8 urte ditu eta Gazan bizi da. Duela bi urte, *geddo* eta *taata* Omar eskolatik itzultzeko zain egoten ziren, Omar ikusteko irrikaz, aitona-amonak egon ohi diren moduan. Pozik joaten ziren beti lotara. *Taatak* noizbehinka istorioren bat kontatzen zion, eta beti muxu goxo baten ondoren hartzen zuen lo Omarrek, hurrengo eguna iristeko irrikaz.

Gaur egun, ordea, Omar ez da eskolara joaten. Egia esan, hilabeteak igaro dira azkenekoz eskolara joan zenetik. Ez dago oso ziur, baina urterik ere pasatu ote den galdetzen dio bere buruari. Omarrek faltan ditu bere lagunak. Asteak dira haien berririk jaso ez duela. Orain, Omarrek ongi ezagutzen du Israel herrialdea. Ez du guztiz ondo menderatzen gaia, baina ahalik eta gehiena ulertzen saiatzen da.

Omarrek eskolara itzuli nahi du, berak medikuntza ikasi nahi baitu kalean hilzorian ikusten dituen pertsonen laguntzeko, baina ezin du. Irratian ez da giro, Israel egin lezakeen hurrengo sarraskiari buruz soilik hitz egiten dute eta hori ez zaio gustatzen Omarri. *Geddori* ere ez, antza denez, irratia kolpez itzali baitu, eta bere logelara joan da. *Taata*, ordea, Omarrengana hurbildu da, eta besarkada goxo batean bildu du. Hori da Omarren leku segurua, hor salbu sentitzen da. Ohera lagundu dio *Taatak*, eta muxu goxo baten ondoren lo hartu du Omarrek. Oraingoan, ez du hurrengo eguna iristeko irrikarik, eta beldurrez itxita dauzka begiak.

Hurrengo egunean, irratiak esan duenez, «Israelgo estatu sionista muturreraino eramaten ari da Palestinako genozidioa». Omarrek ez du hitz horien esanahia ulertzen, baina egunerokoan ikusten duenagatik badaki ez duela ezer onik esan nahi. 80.000 hildakotik gora, eta biztanleriaren desplazamendu masibo edo antzeko

zerbaiti buruz ere hitz egiten dute. Osasun eta ongizate krisi larria dagoela diote eta palestinarren eskubide zibil eta politikoen deuseztapena ere aipatzen dute.

Omarrek badaki bertako egoera ez dela ona, lehen hiri arrunt eta polit bat zena orain suntsituta dagoelako. Kaleetan, ezagunak hiltzen ikusten ditu, hainbat guraso beren haur jaioberrien gorpuei heltzen, zer egin ez dakitela. Hegazkinak edozein ordutan igarotzen dira bere buruaren gainetik. Batzuetan, Europa edo antzeko izen bat duen nonbaitetik dronak bidaltzen dituzte, janarekin eta bizitzeko beharrezko gauzekin. Anabasa batean joaten dira denak, zer edo zer lortzeko esperoan. Beste batzuetan, laguntza taldeak hurbiltzen dira, eta ordu luzez itxaron ondoren, zer edo zer hartzeko aukera izaten du Omarrek.

Bere lagun Malikekin eta Habibekin elkartu da Omar. Hirurak gose dira, baina beren etxeetatik hartzen dituzten liburuak irakurtzen igarotzen dute arratsaldea. Aspaldiko partez, irribarre batekin itzuli da etxera Omar. Geddori kontatzen dio gaur arratsaldean irakurritako istorioa, eta nola desio duen bertako protagonistak zituen bizitzeko aukerak izatea. Azken egunetan ez bezala, hurrengo eguna iristeko gogoz hartu du lo Omarrek.

Gaur ez da zaratarik falta. Hala ere, Omar ohituta dago jadanik. Ahots altuenak ez dira jada giza ahotsak. Bonbak, sirenak eta haien ondorengo oihu isilak dira eguneroko melodia. Habib, Malik, eta inguruko ezagunekin hitzartu bezala, hiriarren beste muturrera doaz, laguntza taldeak iritsiko diren lekura.

Geldialdi batean, lagun baten aitak irratia piztu du, bateria aurreztu behar badu ere. Etxetik pare bat kilometrotara dagoen denda suntsituan eserita daude, eta albistegiak entzuten ari dira, ohiko moduan.

—«Ezinezkoa da gaitzetsi gabe uztea Israelek AEBekin eta NATOrekin dituen harreman estrategikoak. Jakina da Israel dela haien ordezkari Ekialde Hurbilean».

Ulertu du horrekin esan nahi dutena. Eskolan irakasleak hainbatetan aipatzen zuen antzeko zerbait: «*Ez erasotzeak ez zaitu jazarpen kasuaren errugabe bihurtzen, ezer ez egitea ere konplize izatea da*». Omar orain jabetzen da esaldi horren esanahiaz. Munduak ikusten du zer gertatzen ari den. Eta hala ere... ez dute ezer egiten.

Eguerdi aldean, laguntza banatu dute: ura, latak, arropa apur batzuk... eta jostailu bat, plastikozko panpina zahar bat. Iluntzean, Omar etxera itzuli da, eskuan arroz pakete bat eta irakurtzeko liburu txiki bat duelarik. Baina... zerbait ez da ohikoa. Ez dago farolen argirik, ke zuri-lodian murgilduta dago dena. Etxetik ez oso urrun, sua piztuta dago. Jendea korrika, oihu artean, eta lurra dardarka sentitzen du berriro. Sirenak, oihuak... Omar korrika doa bere etxerantz. Ez dago ezer.



Bere etxea... hauts bihurtuta dago. Harrizko mendi bat da, lehen leihoak, oheak eta irribarreak zeuden lekuan, ez dago ezer, dena desagertu da. Jendea taldeak egiten ari da han eta hemen. Oihuak, negar zotinak. Kazetariak. Eta Omar... Omar harriak kentzen ari da. Eskuekin. Ukabilarekin. Eskuak larrutzen ari zaizkio. Baina berdin zaio. Harri artean bila dabil.

—«Geddo!! Taata!! Non zaudete??!!»

Bere ondoan, odola dario mutil bati, beste aldean emakume batek haur txiki bat besarkatzen du, jada bizirik ez dagoen haur bat. Kazetari batek mugikorraren argia Omarren aurpegira zuzentzen du.

–Zertan zabiltza, txiki? –galdetzen dio, tonu samur baina urrun batekin, hizkuntza arrotz batean. Omarrek ez daki zer esan. Eskuak odolez zikinduta ditu. Harriak kentzen jarraitzen du. Kazetariak grabatzen jarraitzen du. Ez du laguntzen. Ez du ezer kentzen. Eta Omar negarrez lehertzen da, eta oihuka esaten du:

–Zergatik hil behar izan dute *geddo* eta *taatak*? Beraiek ez zuten inor mindu... Ni pozik ikusi nahi ninduten! Niri ematen zidaten beren janari apurra! Nork besarkatu behar nau orain?

Kazetaria isilik dago. Eskuekin mugikorrari eutsiz. Ez besoetan, ez harrietan. Mugikorraren pantailatik begiratzen dio Omarri, giza hondamendi bat dokumentatuz, baina lagundu gabe. Pantailaren beste aldetik begiratuz.

Omarrek ez du ezer ulertzen. Ez du ulertzen nola inor ez den etorri laguntzera. Nola mundua begira dagoen, eta inork ez duen ezer egiten. Nola inork ez dituen bere aitona-amonak ezagutzen. Nola inork ez dakien zenbateraino maite zituen berak.

Eta orduan, Malikez oroitu da. Malik... Malik duela egun batzuk lehertutako bonbaren ondoan bizi zen. Malik zegoen lekuan orain ez dago ezer. Harria eta isiltasuna. *Geddo* eta *taatak* sentitzen duten berdina.

Omar belauniko dago hondar eta harrien artean, negar egiten jarraitzen du, eta gauzez, argirik gabe, ez du ondo lo egin dezan besarkatuko duen inor. Kamerek klik eta klik jarraitzen dute.

Eta munduak begira jarraitzen du.

**AIORA
ZALDUA
ELIZETXEA**
Altxor



BIZIPENAK ALTXOR

K.o. 1200 urtea, Machu Picchu, Peru.

Inka herritarren erregea ikusten dut, bere gelako koadro zahar batean urrezko koroarekin. Buru guztia zeharkatzen dion urrezko zinta batek heltzen ditu bitxi handiak. Belarriak estaltzen dizkion bi urrezko txanpon handi ikusten ditut. Eta urrezko koroan gehiena nabarmentzen dena kopetaren erdialdean zintari lotuta dagoen luma urdina da. Erregea bere ohean etzanda dago. Lo dagoela dirudi. Urrezko mekanismo zahar batek soinua helarazten du alarma gisa. Erregeak begiak irekitzen ditu eta bere koroa gordetzen duen kutxara hurbiltzen denean hau hutsik dagoela ikusten du.

2025eko maiatzaren 16a. Ika, Peru.

Begiak irekitzean egin dudan ametsaz ohartzen naiz. Benetan arraroa. Nire mahai gaineko itsulapikoa ikustean beti ohartzen naiz ez naizela nire lagunak bezain aberatsa. Baina ni zorteduna naiz maite nauten aitona-amonekin bizi naizelako. Egunero bezala, gosaltzera jaitsi naiz beheko solairura. Eta hiru astetik behin bezala, nire aitona prest dago niri ematen didan txanponarekin. Baina oraingoan ezberdina da, aitonak begirada dibertigarri zein maltzur batekin begiratzen dit. Zergatik? Gure ekonomia hobetu dugu? Berri on bat esango dit? Aitonak besterik gabe txanpona eman dit. Eta nik itsulapikoan sartu dut. Baina sartu dudan momentuan zulo bat duela ikusi dut. Besterik gabe koilara moduan zintzilikatu dut amonak emandako kate zahar batekin.

Hurrengo eguna da eta gaur nire aitonaekin herriak antolatu duen ibilaldi batera joango naiz. Oso pozik nago, inoiz ez bainaiz bertan egon. Zehazki, Machu Picchu izeneko Inka herritarren herri zaharrera goaz, baina ez pentsa hauek bertan bizi

direnik, duela urte asko desagertu ziren. Goizeko 08:00ak dira, puntu-punttuan. Motxila atzo gauean prest utzi nuen nire ur botila, hamaiketako eta jertse fin batekin. Autobusa hartu dugu eta abiatu gara, irrikaz nago bertan zer ikusiko dugun. Egun zoragarria igaroko dugu. Aitona ere pozik dago elkarrekin egingo dugulako irteera.

Bi ordu eta erdiko bidea egin dugu jada, Nazka izeneko herri batean gelditu gara autobuseko gurpila matxuratu egin baita. Aitonak esan dit bera txikia zenean herri honetara etorri zela bisita bat egitera, oso gauza interesgarriak daudelako. Beraz, erabaki dugu gurpila konpondu bitartean aitonak ikusi zituen gauzak ikus-tera joatea.



to
st
st

Aitonak esan dit 15 minututara lurrean marrazki batzuk ikusiko ditugula, ez diot sinesten, nola egon litezke lurrean marrazki batzuk? Gainera, ez dira 7 urteko neska-mutilek tizarekin egindako marrazkiak. Ez, lurrean agertu diren marrazkiak dira, zientzialariek diote hieroglifikoak direla, eta horren atzean urarekin lotuta sinbolo erlijioso edo kulturalak daudela. 15 minuturen buruan, nire aurrean ditut nire aitona txikia zenean ikusi zituen marrazkiak, ez direla aldatu dio aitona. Hieroglifikoz beteta dago lur-eremu hau guztia. Sinestezina da, izan ere, aurrean nire animalia gustukoena dago marraztuta, kolibria da. Etxean bat dut, urteak eskatzen egon eta gero, logelako leihoan agertu zitzaidan txori txiki bat hegala hautsia zuelarik, bertan erabaki nuen nire animalia gustukoena izango zela. Jada 3 urte ditu eta etxean barrena hegan ibiltzen da, poz-pezik. Baina, zer gertatu da? Esku artean kolibri baten luma bat dut. Urdin-urdina da. Nola agertu da hemen? Marrazki hauek bezain misteriozua izango da hau. Ez dut gehiago pentsatuko horretan, eta motxilan gordeko dut. Autobusera itzultzeko ordua iritsi da eta.

Orain bai, Machu Picchu. Peruko Andeatako mendietan dagoen gotorleku Inka bat da, Urubamba ibaiaren haranean. XV. mendean eraiki zen eta gero bertan behera utzi zuten. Nire aurrean dut, begiak ireki-irekiak ditut. Ezin dut sinetsi. Aitonak esan dit berak bisita eginga duenez eta oso nekatuta dagoenez bertako taberna batean eseriko dela eta ni lasai ibiltzeko gotorleku eder honetatik. Korrika jaitsi ditut leku honetako zelai berdeak, lorez josita. Zuriak, arrosak, urdinak, moreak, horiak... Koadro batean ageri naizela dirudi, dena edertasunez beteta.

Ate bat ikusten dut, harriz eginikoa, arku moduko bat da, beste aldean zer dagoen ikusten uzten du. Pasillo bat dago, hori ere harriz eginga, amaieran Machu Picchuko mendi famatua ikus dezaket. Atea pasatuko dut, baina zelako sentsazio arraroa. Uhin arraro bat pasatu dudala dirudi, eta orain dena ezberdin ikusten dut. Duela minutu bateko gotorleku zahar eta turistaz beterikoa, orain dena arropa arraroekin jantziriko jendez beteta eta zutabe berri-berriekin dago. Urrezko bitxiak daramatzate. Non nago? Bi pauso atzeratu naiz eta berriro atearen beste aldean nago, eta ingurura begiratzean turista guztiak ikusten ditut, baita aitona dagoen taberna ere. Baina, atea igarotzean, berriro, beste pertsonaia batzuk daude. Oraingoan, ordea, nire aurrean gizon bat dut, haserre edo triste aurpegia du, ilea beltza eta luzea du, kapa gorri batekin jantzita dago eta hau lotzen duen urrezko lokailu bat darama, haren azpian urrezko armadura bat du. Buruan urrezko zinta bat dauka dena inguratzen, eta txanpon handi bat belarri bat estaltzen. Nor da? Ez du turista baten antzik.

Nor naizen galdetu dit, bueno, uste dut, izan ere, ez diot oso ondo ulertu. Nik nire izenarekin erantzun diot, lotsaz. Liluratuta begiratu nau, ez dut ezer ulertzen, nor da? Nola agertu da hemen bat-batean? Zertan ari da horrela jantzita? Nire bu-

ruan erantzunen bila ari naizen bitartean berak hatzarekin seinalatu egin nau. Eta ulertezinak egin zaizkidan hitz batzuk ahoskatu ditu. Egoeraren aurrean sakelakoa atera dut, eta itzultzailea eskaini diot. Baina bera zur eta lur geratu da. Ez du ezagutzen zer den mugikor bat? Agian, beste mundu batekoa da eta bera ez da jabetu mugikorrak badaudela gaur egun. Tupustean, harri bat hartu du, eta atearen ondoko arroka bat zizelkatzen hasi da. «1200 K.o.» jartzen du. Zer? Gizon hau burutik jota dagoela pentsatzen hasia naiz. Harria eskaini dit oraingoa. Nik 2025 zenbakiak idatzi ditut, gaur egungo urtea baita.

Ezin dut sinetsi. Bera Inka zibilizazioko erregea da. Nire ametseko pertsona da. Koroa berdinarekin. Baina (koroari) nire ametsarekin konparatuz, zatiak falta zaizkio. Bigarren belarria estaltzen duen txanpona eta buruaren erdialdeko luma urdina. Bertan ohartu naiz, bere belarria estaltzen duen txanponak eta aitonak emandako txanponak antz handia dutela. Lepokoa atera dut eta eskura eman diot. Irribarre handi bat oparitu dit. Baina ez da oso luze igaro eta jada lehengo aurpegi triste ikusten dut. Zer gertatzen zaio? Hatzarekin koroaren erdialdeko helduleku batera seinalatu du. Oraindik gogoan dut nire ametsa, nire ametsean seinalatzen duen heldulekuan luma urdin bat zegoen. Zorionez, autobusa matxuratu denean, aitonarekin joan naizenean Nazka herrira, nire esku artean nire animalia gustukoenaren luma urdin bat agertu da. Eta motxilan gorde dudanez, bertan egon beharko luke. Eta bai, bertan dago. Inka erregeari eman diot. Berak pozaren pozez erreberentzia bat egin dit. Baina agur esango nuen momentuan, desagertu egin da. Urrezko hautsak utzi ditu bera zegoen lekuan. Ametsa ala egia da hau? Ez dut inoiz jakingo.

Hurrengo eguna da, ez dut sentitzen ametsa izan zenik atzokoa, hainbat galdera ditut buruan; nola agertu zen txanpon hori nire etxean? Zortea izango zen luma nire esku artean agertzea? Etxeko txirrina entzun dut, eta korrika jaitsi naiz aitona-amonak ez esnatzeko. Banatzailea ezagutzen dut, ile beltz eta luzea du, gorri jantzia dago, galtzak horixkak ditu eta belarritik zintzilikatuta ditu bi uztai handi. Kartoizko kaxa bat eman dit eskura. Ez du ezer ere esan. Soilik begia kliskatu du eta joan egin da.

Kaxa ireki dut, harrিতa nago. Banatzaile horrek urrezko hainbat bitxi eta txanpon eman dizkigu, altxor handi bat. Nor zen? Inka zibilizazioko erregea zirudien. Zuk uste duzu atzo lagundu egin niolako eman digula hau dena? Ez dut uste. Batzuetan galderak egitea da egokiena eta ez erantzutea. Baina ez dut uste zortea izan zenik hau dena niri gertatu izana. Kutxa irekitzeak ez dit soilik altxor materiala eskaini, galdera berriak, aukera berriak, abentura berriak eta norabide berriak ere bai. Eta, agian, horixe da altxorrik handiena.

**JUNE
MAKAZAGA
GARATE**
Alaitasuna



LORATEGI EZKUTUA

Bazen behin Xabier izeneko gizon bat txikitatik alaitasuna aurkitzearekin amets egiten zuena. Xabierrek urteak pasatu zituen alaitasunaren bila.

Jendearekin gai horri buruz hitz egiten zuenean, denek alaitasuna beste leku batean aurkituko zuela esaten zioten: batzuek aberastasunean bilatzea gomendatuz, beste batzuek bidaietan, eta beste batzuek, ordea, besteen onarpenean.

Xabierrek obeditu egin zuen. Hasiera batean, dirua lortzea jarri zuen helburu gisa. Modu horretara, nahi zituen apeta guztiak erosteko gai izango zen. Egunak pasatu zituen lanean burua altxatu gabe, eta diru izugarria lortu ondoren, bere ametsetako etxea erosi zuen. Etxe izugarri horretan, beste inor gabe, bakarti sentitzen zen. Alaitasuna aurkitzea ezinezkoa egingo zitzaion etxe hartan.

Hori ikusterakoan, munduan zehar bidaiatzea erabaki zuen. Afrikako basamortu beroenak zeharkatu zituen, inoiz ikusitako animalia ederrenak ikusiz. Alpeetako mendirik altueneko gailurrera iristean, bizitza guztian ikusitako egunsentirik politena ikusi zuen. Karibeko itsas-hondo politenetan urpean igeri egiten ere egon zen. Baina oraindik gauzarik politena aurkitu gabe jarraitzen zuen, alaitasuna.

Horretaz gain, jende askoren txalotzeak entzun zituen behin baino gehiagotan. Izan ere, pertsona askorentzat eredu zen, eta askoren alaitasun arrazoia. Baina Xabierrek, bere alaitasuna aurkitu ezinean, bila eta bila jarraitzen zuen.

Diruak, bidaiak eta besteen onarpenak sorrarazten zioten zoriontasuna azkar desagertzen zen. Gaua iristean, logelako argia itzaltzen zuen momentuan bere barrenean betetzeko gai ez zen hutsune isil bat sentitzen zuen.



Egun batean, bere porrotez nekatuta, mendian bizi zen jakintsu adindu baten-gana joatera erabaki zuen, aholkuren baten bila. Jakintsuaren etxera iristean, liluratuta geratu zen. Izan ere, etxe parean kolorez betetako lorategi bat zuen. Adinduari gertatutakoa azaldu zion eta horrela erantzun zion:

—Alaitasuna ez dago kanpoan, lorategi sekretu batean baizik. Baina bertan sartzeko, lehenengo, gelditzen ikasi behar duzu.

Xabierrek ez zuen ezer ulertu, baina berriro ere obeditu egin zuen. Mantsago ibiltzen hasi zen, txorien kantuak entzuten, ur garbi eta freskoa eskertzen, bidean norbaitek begiratzen zionean irri egiten. Poliki-poliki, konturatu zen bizitza aurretik baztertutako dirdira txikiez beteta zegoela.

Goiz batean, plazan ume batekin ogia partekatzen zuen bitartean, zerbait arraroa nabaritu zuen bere barnean: arintasuna. Ingurura begiratu eta argitasunarekin ikusi zuen: jakintsuak aipatutako lorategi sekretu hori ez zegoen mendi bakar batean ere, ez altxorretan, ezta besteen onarpenean ere. Bere barnean zegoen. Maitatzen, eskertzen, benetan bizia aprobeztatzen zuen une orotan irekitzen zen.

Hortik aurrera, Xabierrek bilatzeari utzi eta landatzeari ekin zion. Ontasun keinuak erein zituen, uneak pazientziarekin ureztatu zituen, momentu bakunak loreak izango balira bezala jaso zituen. Eta momentu horretan ulertu zuen alaitasuna ez dela iristen garen leku bat, begi irekiekin ibiltzen den bide bat baizik.

Eta horrela, bere zahartzaroan, jendeak galdetzen dionean ea alaitasuna non aurkitu duen, berak beti irribarrez erantzuten du:

—Inoiz ez da urruti egon. Hemen egon da beti, nire eskuetan, nire urratsetan, nire bihotzean. Soilik begiratzen ikasi behar izan dut.



**ILARGI
ZIAURRITZ
OLAZIREGI**
Txorixua

KAIOLAN HARRAPATUTA

«Egun bat gutxiago. Egun bat gutxiago etxe honetatik alde egiteko, egun bat gutxiago zoriontsu izateko, egun bat gutxiago bizitzen hasteko». Horixe da goizero ohetik altxatu aurretik neure buruari errepikatzen diodana, aurrera jarraitzeko indarra ematen didan pentsamendua. Nire bizitza benetan bizitzea al da? Ala soilik iraun egiten dut?

Kaiola batean bezala sentitzen naiz. Libre izateko erabiltzen dudan kaiola. Nire beldurretatik babesteko eraiki dudan kaiola. Baina kaiola hau txiki geratzen zait, min ematen dit hemen barruan egoteak, libre izan nahi dut, gainerako guztiek egiten duten bezala hegan egin nahi dut. Zergatik ez naiz egoera honetatik ateratzera ausartzen? Kaiolaren kanpoan zer dagoen ikusi nahi dut, baina nola?

Beldur naiz. Garai batean, kaiola txiki honetan babesa aurkitu nuen, kaiola hau besterik ez nuela sinesten nuen, hemendik irtetea merezi ez nuela, hemendik kanpo dagoena ez dela niretzat. Baina orain neure buruari galdetzen diot, zergatik ez? Zergatik izan daitezke gainerako guztiak zoriontsu ni hemen barruan harrapatuta nagoen bitartean?

Hala ere, beldurra izaten jarraitzen dut. Zergatik beldurra? Zeri beldurra? Salto egiteak ekarri ditzakeen ondorioen beldur? Salto egitean, hegan egin beharrean zulora erortzearen beldur? Baina ez al naiz zulo batean bizi? Beldur naiz eta salto egin behar dut. Egoeratik irteteko, arnasten hasteko, bizitzen hasteko, eta ez irauten jarraitzeko.

Telebistan egunero ikusten ditugu albistek: «85 urteko gizon bat atxilotu dute Nafarroan 78 urteko emaztea hiltzeagatik», «Gizon batek 13 urteko alaba hil du eta gero bere buruaz beste egin du Bilbon», «66 urteko gizon batek emaztea hil du

labankadaz El Algarren (Murtzia)». Eta nire kaiolatik kanpo ezjakintasunetik sor-
tutako iritziak entzuten ditut: «Nik hasieratik gauzak argi utziko nizkioke», «Hori
niri gertatuko balitzait, ez nioke ni ukitzen ere utziko», «Zergatik ez du ezer egin
horrelako zerbait gertatu aurretik?»... Jendeak asko hitz egiten du honi buruz, eta
are gehiago gustatzen zaie mutur horretara iritsi ez den zerbaiten aurrean lagun-
tza eskatzen duten emakumeei buruz hitz egitea: «Ziur ez dela hainbesteko izan
eta asmatzen ari dela», «Jendeak gaur egun ez daki nola erakarri arreta», «Gizon
hori ezagutzen dut, eta ez luke horrelako ezer egingo»...

Horrelako zurrumurru eta iritziek nire kaiolako paretak indartzen dituzte. Zein
erraza den pentsatzea indarkeria egoera batetik ateratzea huskeria bat dela,
pauso bakarra eman behar dela: salatzea. Hala eta guztiz ere, hain gutxi badute
pauso hori emateko ausardia, agian ez da hain erraza izango.

Askotan pentsatzen dut jendea ez dela nire azalean jartzen. Baina momentu ho-
rietan neurekoi sentitzen naiz, nire arazoak nireak dira eta besteek ez dute zertan
nire lekuan jarri. Bakarrik nago nire kaiolaren barruan, eta bakarrik irten behar
naiz bertatik. Ni ez naiz munduaren erdigunea, baina banaiz indarkeriaren erdi-
gunea, kaiola honetan bada ere.



Goizean gelako atea ireki eta beldurrez irten naiz, esnatu al da? Beti beldurrez. Lasai bizi ezinean. Zer ote dago kaiolatik kanpo kaiola besterik ezagutu ez duen txoriarentzat? Posible al da bertatik irtetea? Horrela hasten dira egun guztiak nire bizitzan. Eta gaur iritsi da kaiola irekitzeko eguna. Horregatik, sukaldeko bidean, gosaria prestatu behar nuen horretan pentsatu dut egoera honekin amaitzeko momentua iritsi dela. Nire kaiolaren ataka apurtu behar dut. Baina nola? Urte asko dira indarkeria hau pairatzen. Nire gogotik inoiz ezabatuko ez diren urte asko, eta irainak eta zaplaztekoak ez dira jogurta bezala iraungitzen, horien arrastoa hor geratzen da. Nire arima hil duen horrekin bukatu behar dut, nire bizitza hil duen horrekin. Jada ezin dut gehiago, irauteari utzi behar diot bizitzen hasteko eta horretarako...

Sukaldeko harraskan ikusi dut bere gosariko katilua garbitzen. Mahai gainean zegoen labana bat hartu eta hainbestetan berak niri egiteko beldur izan naizena egin dut. Bi aldiz pentsatu gabe bizkarrean labankada bat eman diot, eta horren atzetik beste bat eta beste bat... horrela nire amorru guztiarekin amaitu arte, nire barrena ase arte.

Zer gertatuko da orain? Eskuak odolez beteta ditut, eta bera lurrean. Hain bortizki eman diot, ez dio erantzuteko denbora eman. Azkenean aske sentitzen naiz, nire kaiola apurtu dut nire beldurrekin batera. Zilegizko justiziarekin lortu ez dudana lortu dut orain. Salaketa batekin lortu ezin dudana bakea sentitzen dut, nire erasotzailearekin bukatu baitut. Bukatu dut nire bizitza zapuztu duenarekin. Orain gizarteak epaitu nazala ezjakintasunetik, baina nik ez diot hegan egiteari utziko.

**KATTALIN
ARABOLAZA
PALOMO**
Kataxulo



AGUR ESATEKO BETI DA GOIZEGI

Oiartzun, Euskal Herria

Egunero bezala, ikastolatik bueltan noa etxera. Ostirala da gainera. Asko gustatzen zait momentu hau, bi egun pasatuko baititut lanik egin gabe. Tira, batzuetan izaten ditut lanak, e! Kaligrafia edo; baina atzo egin nuenez, orain jai. Jada ikasi dut etxerako bidea eta bakar-bakarrak itzultzen naiz, oinez. Beno, oinez eta sal-toka ere bai batzuetan, aitzak prestatzen didan ogitartekoa jateko irrikan. Lurreko harri txintxarrak kontatuz, ohartzerako atarian nago. Egunero bezala, buzoian begiratu dut, ea amaren gutuna iritsi den. Baina ez, gaur ere ez. Oraindik bidean egongo da seguru, oso urrutitik bidaltzen dizkigu. Dena dela, udan bidali genion azkena eta jada ikasturtea hasi dugun arren, ez zaigu erantzunik iritsi. Beno, agian zer idatzi pentsatzen denbora asko pasatuko zuen, niri ere batzuetan kosta egiten zait zer esan jakitea: horrenbeste izaten dut kontatzeko! Beraz, bitartean telefonoz hitz egiten dugu; eta tokatzen denetan, kristaletik. Baina onen-onena bere ondoan egoteko aukera dudanean izaten da. Besarkatu eta inoiz ez nuke askatuko, hain usain goxoa izaten du.

Hilabeteko nire momenturik onena eta txarrena asteburu berean izaten dira: aurrez aurreko bisitaren hasiera eta bukaera. Gaizki pasatzen dut, bizitza osoa emango nuke amaren ondoan. Hirurok batera etxe berean lo egitea da nire ametsa. Olentzerori ez diot beste haur guztien gisan auto telegidatua edo argazki kamera bat eskatzen. Urtero-urtero gauza bera eskatzen diot, baina inoiz ez dit ekartzen. Horregatik, Eguberrietako opariek ez didate ilusio handirik egiten. Gustatzen zaizkit, baina ez dira benetan nahi dudana. Nik ama etxera ekartzea nahi izaten dut. Baina ohartu naiz ez dela horren erraza. Aitzak esaten dit ama opari paperean biltzea oso zaila dela, eta horregatik Olentzerok gauza txikiagoak ekar-

tzen dizkidala. Nik uste arazoa beste bat dela, eta ni lasaitzeko esaten duela hori; baina isilik geratzen naiz, hurrengo urtearen zain.

–Zer moduz, ttiki?

–Dena ongi. Etxeko lan bat jarri didate, baina asteburuan egingo dugu, ados?

–Zer eskatu dizute ba? Nahi baduzu orain egingo dugu, bion artean –beti egoten da laguntzeko prest. Beti arduratzen da nitaz. Asko maite dut.

–Ez, ez. Orain ezin dut egin.

–Zergatik ez bada? Horren zaila al da?

–Guretzat garrantzitsua den argazki bat aukeratu behar dugu.

–A! Ordenagailuan badituzu lagunekin ateratako argazkiak. Gogoratzen?

–Ez! Nik ama eta zurekin ateratako bat nahi dut. Horregatik esan dizut asteburuan egingo dugula.

Aitak, hitzik esan gabe, irribarre dardartia egin dit. Bisiten ondoren amari agur esaten diogunean egiten duenaren berdina da. Begiak busti egin zaizkio, itxiz gero malko lodia masailean behera eroriko zaio, eta badakit zerbait esaten badu ere negarrez hasiko dela. Ederki ezagutzen dut aurpegi hori. Beraz, estu besarkatu dut. Ongi ulertu dugu elkar.

Merienda mahai gainean dudala esan dit eskuaz. Ostiralero bezala, txokolate ogitartekoa nuen zain. Egun osoa honen zain eman dut! Eta txokolate goxoa gainera, ez beltza. Ogitartekoa bukatu, eta aitari musu eman diot. Ostiralero bezala, lagunekin geratu naiz plazan.

–Txokolatezko musua!

–Mmmm ze goxoa. Ongi pasa, ttiki. Gero arte! Gogoratu, zazpitan etxean.

Buruaz baietz egin eta lagunengana joan naiz. Atarian itxaroten didate elkarrekin joateko.

Larunbata eta berriro bidean. Batzuetan autobusean joaten gara, baina gaur ez. Autoan goaz. Aitari beti esaten diot aurrean eserita joan nahi dudala, baina esaten dit oraindik ez naizela behar bezain handia. Nik badakit hori, baina saiatzea-gatik ez dut ezer galtzen. Halere, beti gauza bera erantzuten dit: hurrengo bisitan ikusiko dugu...



Burua leihoaren kontra jartzen dut, paisaiari begiratuz. Zelai hori eta lehorrak agertzen hasten direnean, badakit etxetik urruntzen ari garela, ama gero eta gertuago dugula. Hainbestetan egin dugu bidaia bera, jada ikasi baitut. Errepideko marra etenak kontaktzen ditut aspertzen banaiz, edo kamioiak. Bestela, musika jartzen dugu. Pirritx eta Porrotx. Kanta guztiak buruz dakizkit: horretarako denbora nahikoa izaten dugu. Tarteka, jateko geratzen gara, deskantsatzeko. Eta berriz aurrera. Aitak ahalegin guztia egiten du ni ez aspertzeko, baina zaila da, ez dakit zenbat kilometro diren. Asko direla bai. Onena lo egitea da, esnatzen naizenean han egoten gara beti.

Cadizeko espetxea

Badirudi ordularia ez dela aldatzen. Bisiten aurretik urduri egoten naiz. Oso urduri. Nigatik baino gehiago, haiengatik. Ea garaiz iritsiko diren, ea bidaia ona izan duten... ez litzateke lehen aldia izango istripu baten ondorioz bisitara iritsi gabe geratuko liratekeena. Eskerrak, behintzat, beraiei ez zaien inoiz ezbeharrik gertatu. Eta hala izan dadila. Hona sartzean ere nola tratatuko dituzten beldur izaten naiz. Ni ohitua nago jada, kolpe artean bizi gara hemen. Baina etxekoekin nola ibiltzen diren axola

zait; asko gainera. Nahiago nuke niri edozer egitea haiek ukitzea baino. 10 urteko haur bat eta bere aita; ez dute ezeren errurik. Tira, betiko kezkek; bisita guztietan etxekoekin batera itzultzen direnak. Nigatik egiten dute ia hamar orduko bidaia, ni ikustera etortzeko. Eta hori pisu handia bilakatzen da. Erru puntu bat.

Orain hementxe nago, nire pareko ateari begira. Badakit oraindik denbora apur bat falta dela, baina ezin dut gehiago itxaron. Sekulako gogoia daukat haiek ikusteko. Ezinegona, horixe da gaurkoa bezalako egunetan alboan izaten dudana adiskidea. Ez dakit bakarrik egotea baino hobea den, baina konpainia egiten didala, hori bai. Ez dit uzten burua beste gauzetan jartzen. Horrela bizi naiz, batzuetan hain bakarrik, eta besteetan... ere bai; zer esango dizuet. Lagun asko ditut hemen, egia da; horietako gehienak nire gisakoak. Euskaldunak. Elkarren zutabe gara, baina herritik horren urrun egonda, inoiz bete ezingo nukeen hutsune bat dut. Sakona oso. Nik ere ez dakit non duen amaiera.

—Venga conmigo. Ya han venido sus familiares.

Hotzikara batek besarkatu nau. Hotzikara polita izan da. Bat-batean, kezka guztiak irristan ihesi joango balira bezala, eta ilusioak, pozak haien tokia hartu du. Egun osoa une honen zain eman dut. Tira, eguna eta hilabetea. Eta iritsi da! Lehen aldiz, guardia besarkatzeko gogoia sentitu dut. Hau poza nirea! Baina ez, eutsi egin behar dut, gero askatuko naiz. «Hilabete itxaroteko lain izan banaiz, eutsi apur bat gehiago».

—Hori besarkada, hori. Ia ito nau. Honen falta sumatzen nuen.

—Zenbat handitu zaren! —esan diot, beti bezala. Ilusioa egiten dio, eta nik horrekin disfrutatu egiten dut.

Honetaz eta hartaz hitz egin didate. Herrian obrak hasi dituztela. Ikastolan taldez aldatu direla. Biren biderketa taula ikasi dutela. Limoizko bizkotxoia egin zutela lehengo astean. Zinemara joan zirela. Bizikletan ibiltzera. Lanean betiko martxan dabilela. Marrazki bat ekarri didala. Kuadrillakoen partetik eskumuinak. Amonak musu bat bidali didala. Iruditzen zait mundua aldatuko dela hilabete bakar batean. Zenbat gauza dituzten kontatzeko! Nik gustura entzuten diet. Entzun, bai, entzun. Ezer berririk ez baitut izaten kontatzeko. Betikoa. Baina berdin dio, besteak irribarretsu ikusteak indarberritzen nau ni. Haiek hona sartzen badira ere, iruditzen zait ni ateratzen nautela haiekin, eta unetxo batez libre sentitzen naiz. Zoriontsu. Horrelakoetan, denborak hegan egiten du. Nahi baino azkarrago.

Ate soinua, banekien. Unerik onenean etortzen dira beti. «Vayan acabando». Hori mina. Bihotza uzurtu zait. Hirurak geratu gara horrela. Bi hitz, mila labankada. Zergatik guri? Goizegi izaten da beti agur esateko. Gaur ere bai. Azken besarkada

ezberdina izaten da; hunkigarria, eta aldi berean, amorrus betea. Iruditzen zait guardiek disfrutatu egiten dutela gure agurretan. Beti egoten dira atetik begira. Zain. Familia banatzeko zain. Gu negarrez ikusteko zain. Baina ez dugu beste erremediorik izaten. Azken behatz punta askatu arte egon gara eskutik helduta, elkarrengandik banantzeko azken atera iritsi garen arte. Nik burua makurtuta neukan, lur jota. Baina ttikiak esan dit handitzen denean ni zulo honetatik ateratzera etorriko dela. Gaixoa. Eskerrik asko esan diot, eta malkoak atera zaizkit. Poza eta etsipena batera sentitzea zer den ez dut jakin gaur arte. Ez diot nik esan nahi ez dagoela bere esku. Haurtzaroko ilusio horrekin bizi dadila.



**MANEX
ELGETA
TOLOSA**
Iñurri

40 MINUTUZ

Goizean zortzietan puntu-puntuan esnatu naiz. Gogo biziz eta ilusioz. Jantzi, gosaldu eta amonarekin Erreenteriara abiatu naiz hileroko bidaia luzea egiteko prest. Autoko leihotik begira nago, begirada galduaz beste autoei erreparatzen. Familia osoak ikusten ditut, batzuk haserre doaz, beste batzuk lo, gehienak irribarretsu. Iritsi gara Oreretara eta ez dizuet gezurrik esango, urduri nago, oso oso urduri nago. Nolakoa izango da gaurkoan bidaia? Oztoporik izango al dugu?

Autobusean sartu eta duela hilabeteko lagun berberekin elkartu naiz, Aiur, Nerea, Arkaitz, Maialen... Gaurkoan, amonarekin noa, baina familiakoak txandakatu egiten dira niri bidaiari laguntzeko. Aurrekoan, adibidez, osaba Migelekin joan nintzen. Amona eta ni gidariaren atzeko eserleketan eseri gara, bigarren lerroko aulkietan, gainontzekoetan bezala. Ni leihoaren ondoan eta amona pasilloaren aldamenean, ohikoa den bezala.

Lagunak ere egin ditut, izan ere, urte pila goaz haur berberak gure gurasoak bisitatzen, eta azkenean, lagunak bihurtzen gara. Elkarri gure sentimenduak kontatzen dizkiogu eta une hunkigarriak bizi izaten ditugu elkarrekin. Ordu bat, bi ordu, hiru... Bidaia hauek oso luzeak dira, burutik milaka galdera pasatzen zaizkigu segundoero autobusean gaudenoi, baita autobusaren helmugan daudenei ere.

Gaur, esaterako, eserlekuz mugitu eta Maialenen alboan jarri naiz. Maialen nire lagunik onena da eta gaur beste bidaietan baino sentiberago topatu dut, besteetan baino tristeago. Beraz, aldamenean jarri eta hizketan hasi naiz.

—Maialen, zer gertatzen zaizu? Besteetan baino tristeago ikusten zaitut.


–Bai, Aitzol, arazo bat daukat –horrelaxe erantzun dit ahots tristearekin. Segituan malkoak dantzan hasi zaizkio masailetan barrena. Orduan nik eskutik hartu eta lasai egoteko esan diot. Momentu horretan bere erantzunak ni ere hitzik gabe utzi nau.

–Aitzol, ezin izango ditut gurasoak ikusi. Amari minbizia diagnostikatu diote eta espetxeko ospitalean dute itxita. Ez dakite zenbat denboraz jarraituko duen ohean etzanda ezin mugiturik, baina arnasa hartzen. Espetxekoak nire ama hiltzearen zain daude. Akabatu egin nahi dute iraganean gertatutakoogatik eta ezin dugu ezer egin.

Zur eta lur geratu naiz Maialenen hitzekin. Ez nekien zer erantzun eta bata besteari gure kezkek, ardurak eta ezinegonak kontaktzen hasi gara, terapiarik onena ondokoari kontatu eta hari entzutea baita.

Gurasoak ongi egongo al dira?

Hilean zehar, sarritan galdetzen diogu geure buruari egunean zehar gurasoak nola egongo ote diren. Baina bidaietan are gehiago, izan ere, gurasoak gaixo jar-tzen badira, edo jokabide desegokia badute, bisitarik gabe gera gaitzke. Egia esanda, ez litzaidake gustatuko bi hilabetez gurasoak ikusi gabe egotea. Senitar-tekoak berandu iritsiz gero ere, bisita gabe gera gaitzke. Beraz, dena ongi joatea espero dut, espetxe horretan oso zorrotzak dira eta.



Zergatik egon behar dugu guk bidaia honetan?

Ez dakit zergatik egon behar dudan autobuseko eserleku honetan eserita gurasoek egin zuten gauza batengatik. Ez dakit zeinek erabaki duen hau, baina hainbeste diferentzia al dago Euskal Herriko eta Belgikako espetxe baten artean? Ez dut ulertzen espetxeratuen familioi honelako bidaiak pasaraztea gure senideak ikusteko. Istripuen arriskuan, bidaien kostuan... milaka eta milaka arazo jartzen dizkigute senideei bisita egiteko. Horretaz gain, asteburu batez gure egunerokoa atzean uztera behartzen gaituzte, guk ezer egin gabe.

Gaua heldu da eta autobusean nabari da. Isiltasuna da nagusi, argiak itzali dituzte eta gehienok lo hartu dugu.

Gau erdian iritsi gara Belgikara eta esnatu egin gaituzte, goizeko hirurak aldeira autobuseko literak munta ditzagun. Orain bai, denok amets egiteko. Goizeko bederatzietan esnatu egin gara eta espetxearen aldamenengana dagoen jatetxean gosaldu dugu. Urduri nago, izan ere, hamarretan gurasoengana sartzea tokatzen zaigu amonari eta bioi, eta ez dakit zer esango diegan gurasoei. Egia da, hilabete osoa pentsatzen pasatzen dugula, nola hasi elkarrizketa, zer erantzun haien galderei... baina egunean bertan ez da erraza elkarrizketarekin hastea.

Bederatzi eta erdiak dira, gurasoei sartuko dizkiedan gauzak prestatu ditut. Bi galtza

eta lau kamiseta eramango dizkiet gurasoei. Sekretutxo bat ere badaukat amonarekin, amonak egindako krocketatxo batzuk eramango dizkiegu gurasoei sekretuan, biei asko gustatzen zaizkie eta. Niri ere asko gustatzen zaizkit eta beti kentzen diet zatitxoren bat.

Bederatziak eta berrogeita bost dira, espetxeko aterantz hurbildu gara senitar-teko guztiak. Hogei minutuz itxaroten egon eta gero hamarrak eta bostean ireki dizkigute ateak. Espetxean sartu gara eta gurasoei eramango dizkiegun gauzak espetxeko langileei utzi dizkiegu, beraiek gurasoei emateko; amonaren krocketak izan ezik.

Espetxeko pasilloaren aurrean geunden amona eta ni, aurrera hamar pauso egi-ten genituen bakoitzean geldialdi bat egin behar genuen, atzeko atea danbateko batez itxi eta aurrekoa irekitzeko soinu bortitzez. Horrela da beti pasilloa, bisitako zatirik gaziena. Bederatzi ate gurutzatu ostean, azken atera iritsi gara, hamargarren atera; azkenean, ikusten ditut urrunean, korrika hasi eta biei besarkada handi bat eman diet. Hasierako minutuak beti dira nahiko isilekoak. Baina behin hizketan hasita, ez gara isildu.

Pasa da bisitako ordubetea eta berriz irten gara ate gazien pasillotik. Orain ate danbatekoak are gaziagoak dira. Tarteka atzera begiratzen genuen amonak eta biok, eskuak elkarri helduta genituelarik. Atzera begiratzen nuen bakoitzean gurasoen masailetan malkoak isurtzen ikusten nituen, eskuak ezker eta eskuin mugitzen zituzten bitartean guri agurra eginez.

Hona etorri gara, 14 ordu egin ditugu autobusean eta ordubeteren ostean elkarri agur esan diogu. Berriz ere autobusean sartu gara, autobusa errepidean aurrera eta aurrera, espetxea atzean uzten dugun heinean.

Agur, aita eta ama, hilabete barru ikusiko dugu elkar dena ondo badao.

OIARTZUNGO XXXVIII.
XABIER LETE
PROSA ETA POESÍA
LEHIAKETA **2025**





JARE
ASTARLOZA
ETXEBERRIA
Monalisa

HAN ETA HEMEN

Lehergailuak goitik
eta behetik.
Sirenak gogor
eta hildakoak
edonon.
Sinestezina.
Hori hemen,
Gernikan,
izan zen.
Zer nahi zuten?
Zer lortu zuten?
Zergatik egin zuten?

Lehergailuak goitik
eta behetik.
Sirenak gogor
eta hildakoak
edonon.
Sinestezina.
Hori han,
Palestinan,
gertatzen ari da.
Zer nahi dute?
Zer lortuko dute?
Zergatik ari dira?



**EKHI
ARREGI
MAYOZ**
Perretxikua



AIAKO HARRIA

Aiako Harria, zuretzat bereziki egindako poesia.

Aiako Harria, harri puska handia.

Aiako Harria, bere inguruko perretxiko marroi, beltz eta zuria.

Aiako Harria, bere inguruan dena txikia.

Aiako Harria, zure hiru tontorren bidia.

Aiako Harria, zure inguruko azkonar, azeri eta erbia.

Aiako Harria, zure eskubira Jaizkibel mendia.

Aiako Harria, zure bizkarrean egunsentiko eguzkia.

Aiako Harria, zure atzean Lesaka eta aurrean Oiartzun herria.

Aiako Harria, zure zelaietako ardia.

Aiako Harria, zure Kataxulo kobazuloko kriselu horia.

Aiako Harria, goizeroko haize eta egunsentia.

Aiako Harria, zu eta zure inguruko dena zoragarria.

Aiako Harria, misterioz betetako mendia.

Aiako Harria, zure ilunabarreko argia.

Aiako Harria, Kataxulon bizi diren intxixu eta basandiak.

Aiako Harria, zuhaitzak, errekek, landareak eta belardiak.



Baina orain Intxixuen istorioa azkar-azkar kontatuko dizuet.

Intxixuak iristen diren arratsaldea.

Larunbatean egiten den kuestazioa.

Egiten duten dantza harrigarria.

Intxixu bakoitzaren bihurrikeria.

Zuen sustraia,

Oiartzungo espirituen eta piztien arima.

Igandeko kriseilu txikia.

Hori dena zara, Aiako Harria.

**KATTIN
GARAY
MENDIBOURE**
Izar



BIZITZA

Bizitza alferrik galtzen dugun
denboraren emaitza besterik ez da.
Bizitza alferrik galdutako momentuz
betetako egun askotako bidaia da.
Bizitza agurrez, maitasunez, ongietorriez
eta joandako pertsonaz betetako denbora da.
Pertsona bakoitzari onartzen zaion denbora.

Denbora hori baina
bukatu egiten da,
modu batera edo bestera.
Baina bukatu aurretik...

Erabaki al dezakegu gure bizitza
besteena bezalakoa izatea nahi dugun?
Erabaki al dezakegu nola bete nahi
dugun denbora hori?

Bizitza batzuk bereziak dira,
gauzak aldatzen dituzte.
Bizitza horiek bai erabakitzen dute.
Erabakitzen dute beste modu batera

ikusi nahi dituztela gauzak eta mundua.
Erabakitzen dute ez dutela alferrik
galdutako denboraren emaitza bat
izan nahi.
Denbora bera izatea erabakitzen dute.

Eta zuk?



**MALEN
OIARBIDE
GURRUTXAGA**
Ama



ZUREKIN

Zurekin haziko naiz,
zurekin izango ditut nire amets gogokenak,
zurekin biziko ditut hainbat abentura,
zurekin izango naiz ikastetxeko protagonista,
zurekin entzungo ditut amaren ipuin dibertigarri guztiak,
zurekin izango naiz aitaren kuttuna,
zurekin ikasiko dut mundu honetan ikasi beharko dudana guztia.

Zurekin marraztuko dut nire ezpainenetan irribarre zabal bat,
zurekin bihurtuko naiz printze arrosaren printzesa urdina,
zurekin joango naiz ortzadarra Zuri-beltzean dagoen itsaso gorriara,
zurekin batera eramango nau itsasoak uharte bakarti batera,
zurekin dastatuko ditut, lehen aldiz, osabaren txipiroizko krocketak,
zurekin jasoko ditut Olentzeroren hainbat opari,
zurekin jardungo dut jolasean ordua iritsi arte.

Zurekin ezagutuko ditut kultura ezberdinak,
zurekin batera eroriko zaizkit nire malko askotariko batzuk,
zurekin gaindituko ditut nire arazo ugari,
zurekin joango naiz egunero-egunero ikastolara,
zurekin batera egingo diot putz sorgin loreari, nire desioak bete daitezen,
zurekin jasoko ditut amonaren marrubizko muxu guztiak,
zurekin batera itzaliko ditut nire urtebetetze egunetako kandelak.

Zurekin batera etorriko dira udaberriko lore koloretsuak,
eta zurekin batera joango dira,
zurekin izango naiz naizen bezalakoa,
zurekin zenbatuko ditut momentu hunkigarri guztiak,
zurekin beteko dira nire desirak,
zurekin irekiko dira alaitasunaren ate guztiak,
baina ordua iristen denean, ez naiz egongo zurekin,
baizik eta bakarrik.



**IBINTZA
LOPEZ
AZURMENDI**
Ane



GAZA

Begiak itxi, garrasiak entzun.
Begiak itxi, etxeak lurrera erortzen sentitu.
Begiak itxi, odola usaindu.
Begiak itxi, gorpu hilak ukitu.

Goizean, eztanda eta oihu.
Goizean, isiltasun beldurgarria.
Goizean, jendea noraezean korrika,
Goizean, beldurra begietan.


Etxera sartu eta negar oihuak,
nire arreba amaren besoetan,
garrasika, gosetuta,
amaren bihotza negarrez.

Herria suntsituta,
kaleak gorri,
umeak umezurtz,
gurasoak bakardadean.

Ez dakigu oraina,
ez dakigu etorkizuna,
ez dakigu ordua,
ez dakigu amaiera.

Begiak ireki, aitona falta.
Begiak ireki, amona borrokan.
Begiak ireki, arreba lurrean.
Begiak ireki, familia puskatua.

Gaeon, sirena hotsa.
Gaeon, maindire zuriak lurrean.
Gaeon, isilune hotza.
Gaeon, ikara herrian,
gerra amaigabea.



**AITZURI
REBOLLO
ZUBILLAGA**
Josu



ITXURAK

Zer dirudizu, seme?

Zer dirudit?

Eta zer dirudite?

«Galdera zaila da»

Badakit, bada

Entzun, seme, garrantzitsua da eta:

Kontraesanak

Haizerik gabe hegan dagoen ikurrinak bezala

Eguerdiko hamabietan ikusten diren izarrak bezala

Denboran atzera joan nahi duen ordularia bezala

zentzurik gabeak dira

Baina zu ere

Zeure horretan

Kontraesan bat zara

Negar egin nahi

eta irri eginez

Barre egitean

ezkututzen dituzun minez

Itxurak bere horretan

Kontraesanak dirudite

Eta badira

Aireak dastatzen duen garrasi hori
Ez da haserrea, iruditu arren
Airean uzten diren pentsamendu horiek
Garrantzi handia dute, ez iruditu arren
Eguzkiak egiten dituen algara horiek
Ez dira barregarriak, iruditu arren
Eta orduan, zer diozu?
Bizitzak dirudiena bizi nahi duzu
Ala bizitza dena?
Horretarako zaila dirudiena egin behar duzu?
Edo benetan zaila dena?
Izan ere
Seme
Irudipenek egia erakusten digute
Baina ez dirudi erakutsi nahi dutenik
Azkenean ni ere kontraesan bat naiz
Zurekin hitz egiten dudala dirudi
Norbaitek entzuten didala dirudi
Baina zu ere nire irudikapen bat zara
Orduan
Zer dirudit?



**UXUE
ARSUAGA
ARANA**
lxa



EZ ENTZUN, EZ IKUSI, EZ EGIN

Auzoa kiskalita dago eta inork ez du ohartu nahi.
Umea negarrez ari da kristal gardenaren atzean,
baina jendea itsututa dagoela dirudi.
Bestearen mina norberarentzat beti izango da arrotza.

Egunero dugu irudi berdina eskuartean,
albiste mordoak pantaila hotzetan,
entzunezinak diren oihuen aurrean.
Izenik gabeko gorpuak gure artean.
Horien oihu bakoitza oihartzun abandonatu batean galduta.
Inor gehiagok ez du begiratzen zerura.

Tristea dela diogu, halere, eguneroko afari beroaz gozaten dugu.
Tristea dela diogu, halere, kanalez aldatzen dugu.
Tristea dela diogu, halere, berdina egiten jarraitzen dugu.
Tristea dela diogu, halere, sufrituak sufritzen jarraitzen du.

Oihukatzen duten ahotsak urratzen doaz.
Beraien mina erakutsi nahi dute,
baina isiltasuna eskatzen diegu.
Egia entzun beharko genuke,
isiltasuna isildu eta zalaparta ozendu.
Baina beti izango da errazagoa belarriak tapatzea.

Ez da gure etxean gertatzen, urruti dago.
Mugak aitzakia moduan erabiltzen ditugu.
Mapa «ni» eta «bestea» banatzen gaituen pareta lodia da.
Distantziak enpatia hondoratzen duela dirudi.
Haien mina gure koparen distiran ikus dezakegu.

Ez dugu gorrotoa ikusi nahi besteen begietan,
baina ez dugu oztopo hori saihesteko ezer egiten.
Izan gaitzen kontziente munduaren osasunaz.
Has gaitzen denak gure aurrerapausoa ematen
eta gure ahotsa zabaltzen.



**MIREIA
SAGARRA
MARTIN**
Argia



EZIN EGIN AURRERA

Ezin egin aurrera.
Tipi-tapa, tipi-tapa,
haizeak eraman du jada nire mapa.
Zergatik ote ditut zapatilak hautsita?

Hondarra sartzen zait zulo ñimiño horretatik,
tipi-tapa, banoa aurrera,
nahiz eta atzean soka luze bat dudan,
bultza egiten nauena atzera.

Bide luze eta amaigabe honek
ikusi du nire begietako euria erreka eta gero itsasoa bihurtzen.
Tipi-tapa, tipi-tapa banoa olatuekin batera,
behin eta berriro irensten nautenak, ezin atera.

Bidea argi beltz batek argitzen du,
behin eta berriro dardarka,
argia baino gehiago, itzala dakar.

Ahoan, ikatz zaporea nabari dut,
eztarran, berriz, korapilo bat,
korapilo sakona, askatu ezina, beltza,
hasiera eta amaiera ikusten ez den horietakoa.


Tipi-tapa, tipi-tapa, ez dut atzera begiratu nahi,
dena utzi, eta nire pausoen oihartzuna entzuten dut sarri.
Bidea arantza da, ez lore,
baina erakutsi zidaten ez dela ematen amore.

Galderak buruan jirabiran ditudan bitartean, aurrera jarraitzen dut.
Bide honen amaiera... non ote dago?
Erori eta gero ikasi dut altxatzen,
era berean, isilik ez geratzen.

Basamortuan loratu ezin den arrosa bat bezala,
ureztatzen saiatu, eta ur tantarik ez dago.
Tipi-tapa, tipi-tapa,
gure barruko hesiak behera botatzean hasten da askatasuna.

Enara edo uso baten antzera,
libre izan nahiko nuke.
Aireak udazkenean daraman hostoa bezala,
libre.

Jada ez naiz bidea hasi zuen pertsona hura,
krisalidatik ateratako tximeleta naiz,
hegoak zabaltzeko prest nago,
ez dut inongo mugarik.
Tipi-tapa, tipi-tapa, ni naiz aldaketa.



**KATTALIN
ARABOLAZA
PALOMO**
Kataxulo



AHAZTEN DUDALA AHAZTU

Hara, txantxangorri bat
leihoaz bestalde
zuhaitz biluziaren adarrean
pausatu da dardarti
lepoa uzkurthurik, lodi-lodi
ipar haizearen hotzak
geldiaraziko balu bezala.
Ezin mugiturik,
bere gorputzean preso.
Ni bezala.

Esaten didate ahaztu egiten dudala,
ahazten ari naizela.
Nik uste dut ez dudala gogoratzen.
Ezberdina da.

Zomorro bat etorri zitzaidan behin bisitan;
nik atea ireki nion.
Ohartzerako, nirekin daramat.
Edo hark narama ni.

Ingurukoek guztia ahaztu nahi lukete.
Lehengora itzuli,
dena politagoa zen garai hartara,
dena errazagoa zen hartara.
Nire besoek haiek besarkatzeko
adina indar zutenera.

Guztia ahaztu nahi lukete.
Nik ere bai.
Ahazten dudala ahaztu.
Hara, txantxangorri bat.



**MADDI
GARMENDIA
IRASTORZA**
Denbora



ZURE FALTA DUT

Egunak igaro dira zu ez zaudenetik
gauak, goizak, ezberdinak dira zu gabe
eta dena zalantzan jartzen dut zu ez bazaude.
Edozerk zu gogorarazten dit,
baina aldi berean ez dut zure ahotsa gogoratzen
eta konturatu naiz
oroitzapenak hasi naizela ahazten.
Horregatik, errudun sentitzen naiz
eta gure argazkiei begiratzen diet maiz.
Gainera, oparitu zenidan liburuan
idazten hasi naiz,
triste sentitzen banaiz,
barruak askatzeko beti delako garaiz.
Bazkarietan zure falta dut,
betiko lekuan hutsunea dago,
abesten ari dira,
baina hauek jarraitzea egiten zait zailago,
begira geratu naizelako,
amestuz denbora ez dela igaro
eta ez zaudela guregandik urrunago.
Beti nirekin egongo zarela da esaten didaten bakarra eta pozten nauen arren

momentu honetan
zauden lekutik etorri eta azkeneko aldiz
elkar besarkatu ahal izatea da nire beharra.

Baina badakit berez ez zaudela,
esaten didatena gezurra dela,
hala ere zure ahotsa sentitzen dut,
nire buruaren atzealdean, pentsamenduetan barrena.

Aurrera begira jartzen naiz
eta elkarrekin egingo genituenak dauzkat zai.
Zenbat momentu, proiektu eta bidai.
Ez dakit oso ongi zu gabe bidea nola jarrai,
baina lasai.


Aurkituko dut modua, denbora badago
eta ikasiko dut neure burua lasaitzen
bakarrik banago.

Datozenei ere zutaz hitz egingo diet
ahaztearen beldurra ez izateko gehiago.

Beraz, bai, askotan bakarrik egonda
beldurra sentitu arren,
indartsua naizela gogoratuko dut
zuk egiten zenuen bezala lehen,
inoiz ez baitut ahaztuko niretzat nor izan zaren.



EKHI
ARIZMENDI
TELLETXEA
EAT



LANBROA

Maite ditut maite gure bazterrak
lanbroak ezkututzen dizkidanean.
Maite ditut maite gure bazterrak
lanbroak atzean dagoena ikusten uzten ez didanean.
Maite ditut maite gure bazterrak
lanbroak, ezkututzen duena erakusten ez didanean.
Denoi gustatzen baitzaigu urrunean lanbroa ikustea
mendi gainak edertzen.
Baina inork ez du atsegin lanbroaren barruan egotea,
bidaiatzea,
izatea.
Itsutzen baikaitu lanbroak.
Ez baitigu ondoan duguna ikusten uzten.
Ezta ondoan ditugunak ere.
Isilean isuritako malkoak,
jatekorik gabeko platerak,
soinu handiegiko zaplaztekoak.
Nork ikusten ditu?
Bakarrik pasatako momentu garratzak,
banantzen diren gurasoak,
umezurtz gelditu diren haurrak.

Nork ikusten ditu?

Erditze baten ondorengo isiltasuna,
aitona-amonarik gabeko ume bat,
bere buruaz beste egiten dutenak.

Nork ikusten ditu?

Luxuzko arroparik ez dutenak,
goizeko bostetan jaikitzen direnak,
desberdinen etiketa dutenak.

Nork ikusten ditu?

Maite dugu maite
gure bazterrak ezkutatzen dituen lanbro hau,
ikusi nahi ez duguna ezkutatzen digunean.

